

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Arabako Lurralde Historikoaren
Kontu Orokorra**

**Cuenta General del Territorio Histórico de
Álava**

2019





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	11
II.1 Legeak betetzeari buruzko iritzia	11
II.2 Kontuei buruzko iritzia.....	11
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI	
BURUZKO IRITZIA.....	12
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	12
III.2 Zerga-sarrerak	12
III.3 Langileria	12
III.4 Kontratazioa	13
III.5 Beste batzuk.....	15
IV. FINANTZAREN ANALISIA	16
V. URTEKO KONTUAK	19
V.1 Arabako Foru Aldundiaren kontuak	19
V.2 Erakunde autonomoen kontuak	24
V.3 Foru sozietate publikoen kontuak	27
V.4 Foru fundazioen kontuak.....	30
V.5 Urbide Arabako Ur Partzuergoaren kontuak	32
ERANSKINAK	35
A.1 Araudi ezargarria	35
A.2 Aurrekontuko aldaketak	35
A.3 Langileen ordainsariak	36
A.3.1 Arabako Foru Aldundia	36
A.3.2 Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	36
A.3.3 Gazteriaren Foru Erakundea	36
A.3.4 Arabako Foru Suhiltzaileak	37
A.3.5 Foru sozietate publikoak.....	37
A.3.6 Foru fundazioak	37
A.3.7 Urbide Arabako Ur Partzuergoa.....	38



A.4	Transferentziak eta dirulaguntza arruntak eta kapitalezkoak	38
A.4.1	Arabako Foru Aldundia	38
A.4.2	Erakunde-konpromisoak.....	39
A.4.3	Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	40
A.5	Sarrerak, zerga zordunak eta hornidurak	41
A.6	Finantza inbertsioak epe luzera eta aktibo finantzarioak	42
A.7	Administrazioko kontratazioa	44
A.7.1	Arabako Foru Aldundia	44
A.7.2	Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	47
A.7.3	Gazteriaren Foru Erakundea	48
A.7.4	Arabako Foru Suhiltzaileak	49
A.7.5	Foru sozietate publikoak.....	51
A.7.6	Foru fundazioak	53
A.7.7	Urbide Arabako Ur Partzuergoa.....	54
A.8	Dirulaguntzen analisia.....	54
A.8.1	Dirulaguntza izendunak eta zuzenak	54
A.8.2	Deialdi bidez emandako dirulaguntzak	55
A.9	Arabako Lurralde Historikoaren kontu bateratuak.....	56
ALEGAZIOAK		59
ABREVIATURAS		73
I. INTRODUCCIÓN		75
II. OPINIÓN.....		77
II.1	Opinión sobre el cumplimiento de legalidad	77
II.2	Opinión sobre las Cuentas	77
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....		78
III.1	Presupuesto y Contabilidad.....	78
III.2	Ingresos tributarios	78
III.3	Personal.....	78
III.4	Contratación	79
III.5	Otros	82
IV. ANÁLISIS FINANCIERO		83



V. CUENTAS ANUALES.....	86
V.1 Cuentas de la Diputación Foral de Álava	86
V.2 Cuentas de los Organismos Autónomos	91
V.3 Cuentas de las Sociedades Públicas Forales	94
V.4 Cuentas de las Fundaciones Forales	97
V.5 Cuentas del Consorcio de Aguas de Álava - Urbide	99
ANEXOS	101
A.1 Normativa aplicable	101
A.2 Modificaciones presupuestarias	101
A.3 Remuneraciones de personal	102
A.3.1 Diputación Foral de Álava	102
A.3.2 Instituto Foral de Bienestar Social	102
A.3.3 Instituto Foral de la Juventud.....	102
A.3.4 Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava.....	103
A.3.5 Sociedades Públicas Forales	103
A.3.6 Fundaciones Forales	103
A.3.7 Consorcio de Aguas de Álava - Urbide	104
A.4 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital	104
A.4.1 Diputación Foral de Álava.....	104
A.4.2 Compromisos institucionales	105
A.4.3 Instituto Foral de Bienestar social.....	106
A.5 Ingresos, deudores tributarios y provisiones	107
A.6 Inversiones financieras a largo plazo y activos financieros	108
A.7 Contratación administrativa	110
A.7.1 Diputación Foral de Álava.....	110
A.7.2 Instituto Foral de Bienestar Social	113
A.7.3 Instituto Foral de la Juventud.....	114
A.7.4 Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava.....	115
A.7.5 Sociedades Públicas Forales	117
A.7.6 Fundaciones Forales	119
A.7.7 Consorcio de Aguas de Álava – Urbide.....	120
A.8 Análisis de subvenciones.....	120
A.8.1 Subvenciones nominativas y directas	120
A.8.2 Subvenciones concedidas mediante convocatoria	121
A.9 Cuentas Consolidadas del Territorio Histórico de Álava.....	122
ALEGACIONES	125





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

AFA	Arabako Foru Aldundia.
AFS	Arabako Foru Suhiltzaileak.
AGA	Araba Garapen Agentzia SAU.
ALH	Arabako Lurralde Historikoa.
AMAS	Autonomiari eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistema.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EPE	Enplegu Publikoaren Eskaintza.
FA	Foru Araua.
FD	Foru Dekretua.
FEPEL	Toki Entitateen Partaidetza Egonkartzeko Funtza.
FGKE	Foru Gobernuaren Kontseiluaren Erabakia.
GFE	Gazteriaren Foru Erakundea.
GOFE	Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.
SISEU	Suteak Itzaltzeko eta Salbamendurako Eskualdeko Unitatea.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
SSPP	Sozietate Publikoak.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2020rako Lanerako Programan erabakitakoari jarraikiz, Arabako Lurralde Historikoaren 2019ko ekitaldiaren Kontu Orokorren fiskalizazioa mamitu du.

Arabako Batzar Nagusiek ez zuten 2019ko ekitaldirako Aurrekontuen FA onartu eta honenbestez, luzapenaren araubidea baliatu behar izan da. Foru Gobernuaren Kontseiluak 2018ko abenduaren 28an 71/2018 FD onartu zuen, 2019ko ekitaldian zehar 2018ko ALHko aurrekontuak luzatzeko irizpideak finkatzen dituen.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: egiaztatu da ea aurrekontuaren, zorpetzearen, finantza eragiketen, langileriaren, obra, zerbitzu eta hornidura kontratazioaren, laguntza eta diru-laguntza publikoak ematearen, eta zuzenbide publikoko sarreraren arloetan aplikagarri den araudia betetzen den.
- Kontularitzakoak: aztertu da ea Kontu Orokorra mamitzen den hura arautzen duen kontularitzako printzipioak betez.
- Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu likidazioaren finantza analisia.
- Lanean ez da jaso gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak (ikus www.araba.eus-en) ondotik zerrendatutako erakundeek 2019ko ekitaldian gauzatutako aurrekontu, ondare eta diruzaintzako eragiketa guztiak besarkatzen ditu:

- Arabako Foru Aldundia
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (GOFE). Erakunde autonomo administratibo honek gizarte zerbitzuekin zerikusia duten jarduerak antolatu, kudeatu, bideratu eta gauzatzeko ardura du.
- Gazteriaren Foru Institutua (GFI) gazteriaren erabateko prestakuntza eta sustapenera zuzendutako erakunde autonomo administratiboa da.
- Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoak Araban prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua ematen du.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- AFaren sozietate publikoak, zeinetan kapital sozialean duen partaidetza % 50etik gorakoa den:

SOZIESTATE PUBLIKOAK	% PARTAIDETZA	SOZIESTATEAREN HELBURUA
Araba Garapen Agentzia SAU (*).....	100	ALHren sustapen ekonomikoa.
Naturgolf SA.....	99,98	Izki-Golf multzoaren ustiapena
Arabako Kalkulu Zentroa SA.....	100	Informatikaren ustiapen-zerbitzuak
Arabako eraikitako Ondare Kulturalaren Kudeaketarako SA (Arabarri) (**).....	100	Zaharberritze integratuko jarduerak. Likidazioan.
Arabako Lanak, SAU (***).....	100	Azpiegituretako obra publikoak proiektatu, finantzatu eta ustiatzea. Iraungia.
Arabako Bideak SAU.....	100	A-1 autopista eraiki, zaindu, konpondu eta ustiatzea ALHtik igarotzean.
Indesa 2010 SL.....	99,94	Arabako pertsona ezinduentzat enplegua sortu, betiere enplegu zentro berezi modura.

(*) 2019ko maiatzaren 13ko Akziodunen Ezohiko Batzar Nagusiak erabaki zuen Aldalur Araba SL sozietatea xurgatu eta fusioatzea; sozietate horren partaidetza oso-osorik AFarena da. Sozietatera txertatutako sozietate xurgatuaren ondare garbia 21.807,44 euro zen.

(**) Likidazioan, 2018ko ekainaren 29ko Batzorde Nagusiak hartutako desegite-erabakiaren ostean.

(***) 2016ko uztailaren 20an Akziodunen Batzar Nagusiak sozietatea desegitea erabaki zuen. Erakundearen likidazio- eta azkentze-prozesua 2019ko ekainaren 27an amaitu da, notario aurreko eskritura publiko bidez.

- Foru fundazioak:

FORU FUNDAZIOAK	% PARTAIDETZA	FUNDAZIOAREN XEDEA
Arabako Artium Fundazioa.....	100	Arabako Arte Garaikidearen Euskal Museoa Zentroa-Artium kudeatu eta zuzentzea.
Andre Maria Katedralaren Fundazioa (*).....	40	Gasteizko Santa Maria katedrala eta bere hiri ingurunea egonkortzea, leheneratzea eta zaharberritzea.
Añanako Gatz Harana Fundazioa.....	98,04	Añanako Gatz Harana eta bere ingurua egonkortzea, leheneratzea eta zaharberritzea; ingurune horretan berariaz barne hartzen dira "Ikknitak edo Miozenoko aztarnak" izenekoak, Añanako udalerrian daudenak.
Kirolaraba Fundazioa.....	100	Kirolaren sustapena eta garapena Araban, goi errendimenduko kirol ez profesionalari lehentasunezko arreta eskainiz.

(*) Gasteizko Udalak zuzkidura funtsean % 40ko partaidetza du

- Urbide Arabako Ur Partzergoa: ura eta saneamendua hornitzeko zerbitzu publikoen azpiegitura finkatu eta ustiatzea ditu helburu.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Diputatuen Kontseiluak abenduaren 18ko 53/1992 FAren 125. artikuluan aurreikusitako salbuespenezko prozedura bitartez, ALHren Ekonomia eta Aurrekontuen Araubideari buruzkoak, 2019ko 581.090 euroren gastuak baliokidetu ditu (37.079 euro AFarenak, 450.000 euro AFSrenak eta 94.011 euro GOFerenak); Kontu-hartzaitzak edo Kontabilitate Zerbitzuak, baina, baliokidetze horren aurkako txostena egin zuen. Honako hauek izan dira egindako ez-betetzeak: publikotasun eta lehia printzipioak ez gordetzea; kontratuak aldatzea aurretik horretarako eskumena duen organoaren onespena jaso gabe eta gastua kontratua sinatu aurretik egitea (ikus A.7.1).
2. GOFek, Kalkulu Zentroa SAK, Indesa 2010 SLk eta Urbide Arabako Ur Partzuergoak zenbait zerbitzu eta hornidura kontratatu dituzte publikotasun eta lehia printzipioak bete gabe (ikus A.7.2, A.7.5 y A.7.7).

	Euroak
GOFE.....	335.773
KALKULU ZENTROA SA	125.723
INDESA 2010 SL	60.046
URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA.....	98.977

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan azaldutako ez-betetzeak alde batera, ALH osatzen duten erakundeek zuzentasunez bete dute 2019ko ekitaldian ekonomiaren eta finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, 2019ko Aurrekontuaren Likidazioan jasotako 1. Oharrear azaldutakoa aintzat hartuta, Arabako Lurralde Historikoa osatzen duten erakundeen kontuek (Ikus I. Sarrera) alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2019ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Inbertsio errealei buruzko kapituluan, AFAk 5,4 milioi euroren ondare-gastuak zenbatu ditu; horiek galera eta irabaziei egotzi zaizkie. Funtsean, azpiegiturak konpondu eta zaintzera bideratu dira.
- Likidazioan dagoen Arabako Kultur Ondare Eraikia Kudeatzeko SAREN 2019ko ekitaldirako aurrekontua ez dute onartu sozietatearen likidatzaileek.
- Araba Garapen Agentzia SAU, Kalkulu Zentroa SA, Indesa 2010 SL eta Naturgolf SA sozietateek ez zuten hasieran onetsitako aurrekontua aldatu 71/2018 Foru Dekretuan aurreikusitako xedapenetara egokitzeko, zeinak 2019ko ekitaldian Arabako Lurralde Historikoaren 2018ko aurrekontuen luzapena aplikatzeko irizpideak ezartzen baititu.
- Urbide Arabako Ur Partzuergoak egindako aurrekontuaren edukiak ekitaldian likidatu beharreko eskubide eta obligazioen diru-sarreraren eta gastuen gutxi gorabeherako egoera-orri bat baino ez du aurkezten, eta ez ditu aipatzen Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauak eskatzen dituen gainerako agiriak. Araudi hori aplikagarritzat hartzen du Partzuergoak.

Horri dagokionez, esan behar da Partzuergoa AFARI lotua dagoen unetik beretik, AFARI ezargarria zaion aurrekontuko eta kontularitzako araudia bete behar duela.

III.2 ZERGA-SARRERAK

AFAk eskuz kudeatzen ditu egoera berezietan emandako geroratze eta zatikapenak, geroratze kontua, errekurritutako zerga-zorra eta ordaindu gabeko zorra Derrigorrezko diru-bilketa agentziara igortzea. Kudeaketa-informazioaren kalitatea hobetu behar luke prozesuak automatizatu eta diru-bilketa zerbitzuak emandako informazioa kontabilitatean jasoz.

III.3 LANGILERIA

- Naturgolf SAK izaera finkoko hiru kontratazio egin ditu (zerbitzari laguntzailea), sozietatearen egiturazko plantillan jasota ez daudenak. Taberna artatzeko langileak kontratatzearen arrazoa da ezinezkoa izan dela zerbitzu horren kudeaketa kanpora ateratzea 2019ko ekitaldian. 2020ko ekitaldian zerbitzua kontratatu da, eta langileen kontratuak urtarrilaren 31n deuseztatu dira.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- AFSk 2018ko EPEren deialdia handitu du, bederatzi lanpostu barne hartuta. Lanpostu horiek hautaketa-prozesuan zehar sortutako lanpostu hutsei dagozkien arren, ez dago urteko EPEan berariaz onartutako euskarririk lanpostu horiek behar bezala betetzen direla bermatzeko.

III.4 KONTRATAZIOA

AFAk 2019an 48,1 milioi euroan formalizatutako 16 espedienteren lagina aztertu dugu eta AFAk aurreko urteetan esleitutako beste 22 espedienteren jarraipena, 2019an 35,5 milioi euroren egikaritza izan dutenak. Zera ikusi dugu:

- AFAk esleipenerako ezarritako gehieneko epea gainditu du 13,2 milioi euroan esleitutako obra-kontratu batean, bost zerbitzu-kontratutan, hornidura batean eta zerbitzu publikoaren kudeaketa batean (ikus A.7.1, 1, 4., 5, 6, 8, 10, 14 eta 16 zk. espedienteak).
- Hamar egun baino gehiago igaro dira kontratua formalizatu denetik EBAOra bidali arte, 8,3 milioi euroan esleitutako lau zerbitzu-kontratutan eta kontratu misto batean (ikus A.7.1 1, 2, 5, 13 eta 14 espedienteak), eta ez da EBAOn argitaratu 1,2 milioi euroan esleitutako bi zerbitzu-kontraturen esleipen-iragarkia (ikus A.7.1 7 eta 8 espedienteak).
- Hamabost egun baino gehiago igaro dira kontratua formalizatu zenetik kontratatzailearen profilean argitaratu zen arte, 16,9 milioi euroan esleitutako obra-kontratu batean, hiru zerbitzu-kontratutan eta hornidura-kontratu batean (ikus A.7.1, 1, 3, 12, 13 eta 14 espedienteak).
- Ez da errespetatu kontratuaren esleipena jakinarazten denetik kontratua sinatu arteko hamabost egun balioduneko gutxienezko epea, AFAk 11,5 milioi euroan eta 597.625 euroan hurrenez hurren esleitutako kontratazio-arloko errekurtsio bereziaren mendeko zerbitzu-kontratu batean eta hornidura-kontratu batean (ikus A.7.1, 3 eta 7 zk. espedienteak).
- Guztira 39,5 milioi euroan esleitutako hamar espedientetan, ez da onartu kontratua kontratatzailearen profilean (ikus A.7.1, 3, 4, 7, 9, 10, 11, 12, 13, 14 eta 15 zk. espedienteak).
- Ez da onartu AFAk 2,6 milioi euroan esleitutako obra-kontratu baten lan-programa (ikus A.7.1, 4. espedienteak).
- 39,4 milioi euroan esleitutako hiru kontratutan, lanei dagokien hilabetearen hurrengoaren lehenengo hamar egunak igaro ondoren egiten da obra-ziurtagiria (ikus A.7.1 9., 25 eta 32 zk. espedienteak).
- Kontratuaren aldaketak onartu dira hiru obra-kontratutan, eta, horien ondorioz, aurrekontua handitu eta epea luzatu da, ase beharreko premien aurretiko definizio desegokiaren ondorioz; izan ere, aldaketa justifikatzen duten arrazoiak ez dira gerora sortutako inguruabarren ondorio (ikus A.7.1, 17, 21 eta 35 zk. espedienteak).
- Azken ziurtagiria onesteko epea (3 hilabete, harreratik zenbatzen hasita) gainditu egin da 1,4 milioi euroan esleitu diren bi obra-kontratutan (ikus A.7.1; 25 eta 34 zk. espedienteak).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Obra ziurtagiriak edo emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak atzerapenez onartu dira, ondasunak egiaz entregatu edo zerbitzua eman eta hurrengo hogeita hamar egunak igaro ondoren honako espediente hauetan: 2019an esleitutako bi kontratutan (ikus A.7.1, 7 eta 16 zk. espedienteak) eta lehenagoko ekitaldietan esleitutako bost espedientetan (ikus A.7.1, 21, 32, 36, 37 eta 38 zk. espedienteak). Metatutako zenbatekoak 91.754 eurorenak eta 694.655 eurorenak izan dira, hurrenez hurren.
- Prezioaren ordainketa egin da hogeita hamar egunak igaro ondoren, obra ziurtagiriak edo emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak onartu zirenetik, honako espediente hauetan: 2019an esleitutako zortzi kontratutan (ikus A.7.1, 4, 8, 9, 10, 11, 12, 13 eta 14 zk. espedienteak) eta lehenagoko ekitaldietan esleitutako hamabi kontratutan (ikus A.7.1, 20, 22, 23, 24, 26, 27, 31 eta 31 zk. espedienteak). Metatutako zenbatekoak 953.854 eurorenak eta 3,6 milioi eurorenak izan dira, hurrenez hurren.

2019an erakunde autonomoek formalizatutako espedienteen lagin bat aztertu, aurreko urteetan esleitutako espedienteen jarraipena egin eta 2019an sozietate publikoek, foru fundazioek eta Urbide Arabako Ur Partzuergoak esleitutako edo luzatutako espedienteen jarraipena egin ondoren, honako hau hauteman dugu: (ikus A.7.2, A.7.3, A.7.4, A.7.5, A.7.6 eta A.7.7),

- 26,8 milioi euroan esleitutako GOFEn lau kontratutan (1, 2, 3 eta 4 zk. espedienteak); 973.769 euroan esleitutako GFAn bost kontratutan (1, 2, 3, 4 eta 5 zk. espedienteak); eta 123.662 euroan esleitutako AFSren hiru kontratutan (1, 2 eta 3 zk. espedienteak) ez da ageri kontratuaren arduradunaren izendapenik.
- 189.530 euroan esleitutako GFEren kontratu batean, lizitazio-iragarkiak ez du luzapenerako aukerarik ezartzen; hala ere, Administrazio-klausula partikularren agirien ezaugarrien taulak 18 hilabeteko luzapenerako aukera dagoela adierazten du (4. espedienteak).
- Honako erakunde hauen kontratatzailearen profilak ez du jaso behar lukeen informazio guztia jasotzen:
 - GOFEn: kontratua ez da argitaratu 24,4 milioi euroan esleitutako hiru espedientetan (2, 3 eta 4 zk. espedienteak).
 - GFE: kontratua ez da argitaratu 280.060 euroan esleitutako bi espedientetan (1 eta 5 zk. espedienteak).
 - GFE: kontratua ez da argitaratu 373.619 euroan esleitutako bi espedientetan (3 eta 4 zk. espedienteak).
 - Arabako Kalkulu Zentroa SAK eta Urbide Arabako Ur Partzuergoak ez dute argitaratu kontratu txikiei buruzko informaziorik.
- Esleipena ez da egin esleipendunari eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan:

- GFE: 693.709 euroan esleitutako hiru kontratutan (2, 3 eta 4 zk. espedienteak).
- AFS: 78.285 euroan esleitutako bi kontratutan (1 eta 2 zk. espedienteak).
- Ez da errespetatu kontratuaren esleipena jakinarazten denetik kontratua sinatu arteko hamabost egun balioduneko gutxieneko epea, GFEk 214.500 euroan esleitutako kontratazio-arloko errekurtsio bereziari lotuta ez dagoen zerbitzu-kontratu batean (3 zk. espedienteak).
- 78.285euroan esleitutako AFSren bi zerbitzu-kontratutan, 15 egun baino gehiago igaro dira kontratua formalizatu eta hura kontratatzailearen profilean argitaratu bitartean (1 eta 2 zk. espedienteak).
- Hamar egun baino gehiago igaro dira kontratua formalizatu denetik EBAOra bidali arte, 26,8 milioi euroan esleitutako GOFEn lau kontratutan (1, 2, 3 eta 4 zk. espedienteak).
- Atzerapenez onartu dira obra ziurtagiriak edo emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak, izan ere ondasunak egiaz entregatu edo zerbitzua eman denetik hogeita hamar eguneko epea gainditu da:
 - GOFEn: 2019an esleitutako kontratu batean (3 zk. espedienteak) eta lehenagoko ekitaldietan esleitutako kontratu batean (7 zk. espedienteak). Metatutako zenbatekoak 444.019 eurorenak eta 4.782 eurorenak izan dira, hurrenez hurren.
 - GFE: 2019an esleitutako kontratu batean (1 zk. espedienteak). Zenbateko metatua 45.000 euro izan zen.
 - AFS: 2019an esleitutako kontratu batean (4 zk. espedienteak) eta lehenagoko ekitaldietan esleitutako kontratu batean (5 zk. espedienteak). Metatutako zenbatekoak 44.477 eurorenak eta 14.484 eurorenak izan dira, hurrenez hurren.
- GOFEn aurreko ekitaldietan esleitutako kontratu batean, prezioaren ordainketa egin da hogeita hamar egunak igaro ondoren obra ziurtagiriak edo emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak onartu zirenetik, (6 zk. espedienteak). Zenbateko metatua 93.167 euro izan zen.

III.5 BESTE BATZUK

- Urbide Arabako Ur Partzuergoaren bideraketa sareko hornidura-zerbitzua emategatiko tasak arautzen dituen ordenantza Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeke dago. Bestalde, tarifak ez dira eguneratu AFaren eta Partzuergoaren arteko lankidetzaren tekniko-finantzarioko hitzarmenean jasotako aurreikuspenen arabera.
- AFAk ez ditu baimendutako sinadurak gaurkotu 15 finantza-erakundetan.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

AFAk 2018 eta 2019ko ekitaldietan kitatutako magnitude nagusiak honako hauek dira:

ARABAKO FORU ALDUNDIA	Euroak milakotan		
	2019	2018	BARIAZIOA 2019/2018
Sarrera arruntak	2.496.809	2.442.547	% 2,2
Zerga zuzenak eta zeharkakoak	2.471.887	2.402.239	
Tasak eta bestelako sarrerak	19.891	21.137	
Transferentzia arruntak	4.578	18.557	
Ondare-sarrerak	453	614	
Erakunde-konpromisoak	2.025.442	1.990.891	% 1,7
Estatuari Kupoak	150.695	151.915	
Elri ekarpena	1.639.431	1.609.429	
Udalei ekarpena	235.316	229.547	
Sarrera arrunt garbiak	471.367	451.656	% 4,4
Gastu arruntak	339.247	337.474	% 0,5
Langileen gastuak	65.763	63.887	
Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	53.931	52.242	
Gastu finantzarioak	9.722	10.346	
Transferentzia arruntak	209.831	210.999	
ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA (1)	132.120	114.182	% 15,7
KAPITALEZKO ERAGIKETAK (2)	(87.512)	(69.510)	% 25,9
Inbertsio errealeen besterentzea	2.418	1.951	
Kapital transferentziengatiko sarrerak	7.168	7.381	
Inbertsio errealetan gastuak	(48.179)	(43.255)	
Kapitalezko transferentziek eragindako gastuak	(48.919)	(35.587)	
FINANTZAKETAKO ERAGIKETEN SALDOA (3)	(13.319)	(7.950)	% 67,5
Aktibo finantzarioen bariazio garbia	(4.378)	(3.004)	
Pasibo finantzarioen bariazio garbia	(8.941)	(4.946)	
EKITALDI ARRUNTAREN EMAITZA (1+2+3)	31.289	36.722	(% 14,8)
Aurreko ekitaldietako emaitza (4)	(34.264)	(15.180)	
Finantziario-desbideratzeak (5)	(40)	(2)	
Doiketa finantzarioa (6)	(30.149)	(36.434)	
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA (1+2+3+4+5+6)	(33.164)	(14.894)	% 122,7

ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA

2019ko ekitaldi itxierako likidazioaren arabera, eragiketa arruntek eragindako emaitza aurreko ekitaldian eskuratutakoa baino 17,9 milioi handiagoa da (% 15,7). Hona hemen bariazio adierazgarrienak:

- Sarrera arruntek eragindako eskubideak 54,3 milioi euroan gehitu dira (% 2,2), zeharkako zergak 73,2 milioi euro gehitu izanaren ondorioz nagusiki.
- Erakunde konpromisoek eragindako gastua 34,6 milioi euroan gehitu da (% 1,7) 2018koaren aldean, itunpeko zergen diru-bilketa % 1,9 igo delako.
- Gastu arruntak 339,2 milioi euro izan dira eta 2018koen pareko mailan daude.

KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA

Kapital-eragiketen emaitza negatiboa da oraindik ere 87,5 milioi euroan, aurreko ekitaldikoa baino 18 milioi euro handiagoa, izan ere, kapital-transferentziek ekitaldian 13,3 milioi euro egin dute behera.

FINANTZA ERAGIKETEN SALDOA

Eragiketa finantzarioen saldoa 2019an negatiboa izan da 13,3 milioi euroan. Saldo horrek 5,4 milioi euro egin du gora aurreko ekitaldiaren aldean, hura ere negatiboa, batik bat zorpetze garbitik eratorritako 4 milioi euroren gastu handiagoa izan delako.

AURREKO EKITALDIEN EMAITZA

2019an, aurreko ekitaldietako emaitzak negatiboa izaten jarraitzen du 34,3 milioi euroan. Saldo hori 19,1 milioi euro jaitsi da 2018. urtearekin alderatuta, 2019ko ekitaldian eskubide gehiago baliogabetu direlako (8,1 milioi euro), kaudimen-gabezien hornidurarako zuzkidura 5,4 milioi euroan handitu delako eta FEPELen hornidura 5,6 milioi euro jaitsi delako 2018. urtearekin alderatuta.

DIRUZAINNTZA GELDIKINA ETA ZORPETZEA

- 2019ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikinak (114,6 milioi euro) 3,2 milioi euroan gaintu du 2018ko abenduaren 31ko geldikina (111,4 milioi euro).
- 2019ko ekitaldian AFak beste zorpetze bat baliatu du 55 milioi euroren zenbatekoduna. AFaren aurrekontuko zorpetzea 2019ko abenduaren 31n 2018ko abenduaren 31n zuena baino 8,9 milioi euro txikiagoa da.
- Sozietate publikoen zorpetzea barne hartzen badugu, zorpetzeagatikoko saldoa 29,9 milioi euroan murrizten da (% 4,8).

	Euroak milakotan	
	2019	2018
AFaren aurrekontuko zorpetzea.....	497.088	505.967
Arabako Bideak SAUren zorpetzea	89.355	95.296
Araba Garapen Agentzia SAUren zorpetzea	3.357	16.999
Indesa 2010 Slren zorpetzea.....	-	1.478
GUZTIRA	589.800	619.740

ONDORIOA

- Apirilaren 27ko 2/2020 Lege Organikoak, Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoak, 3. eta 4. artikuluetan administrazio publikoei ezargarriak zaizkien aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunaren printzipioak ezartzen ditu, aurrekontuan oreka edo egiturazko superabit egoera modura eta oraingo eta etorkizuneko gastu konpromisoak finantzatzeko gaitasun modura ulertzen direnak, defizitaren eta zor publikoaren mugaketen barruan.

Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailletza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zitzaizen eta horiek ez dute salbuespenik adierazi.

- 2019an, AFaren likidatutako eskubideak eta betebeharrak likidoak behin betiko aurrekontuaren % 99,57 eta % 98,39 ziren, hurrenez hurren. Horren ondorioz, 31,3 milioi euroren superabita izan da ekitaldi arruntean, 2018ko ekitaldiko superabita baino 5,4 milioi euro txikiagoa. AFaren zorpetzeak 8,9 milioi euro egin du behera, 2018ko datuekin alderatuta. AFaren finantza-egoera 2019ko abenduaren 31n 2018an data berean zuenaren antzekoa da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 ARABAKO FORU ALDUNDIAREN KONTUAK

A. 2019KO EKITALDIKO AURREKONTU ARRUNTAREN LIKIDAZIOA Euroak milakotan

SARRERAK	AURREIKUSPENA		AURREIKUSPENA		ESKUBIDE KITAT.	DIRU-BIL. LIKIDOA	KOBRA. GABEA
	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.	B. BETIK.			
1.- Zerga zuzenak	A.5	1.111.691	24.970	1.136.661	1.164.031	1.127.273	36.758
2.- Zeharkako zergak	A.5	1.298.733	-	1.298.733	1.307.856	1.278.192	29.664
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.5	16.408	50	16.458	19.891	10.605	9.286
4.- Transferentzia arruntak		81.111	1.021	82.132	90.678	89.058	1.620
5.- Finantza sarrerak		478	-	478	453	369	84
6.- Inbertsio errealeen besterentzea		2.786	804	3.590	2.418	2.297	121
7.- Kapitalezko transferentziak		7.886	(1.331)	6.555	7.168	4.135	3.033
8.- Finantza aktiboen bariazioa	A.6	25.732	24.820	50.552	130	127	3
9.- Finantza aktiboen bariazioa		63.941	-	63.941	55.000	55.000	-
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		2.608.766	50.334	2.659.100	2.647.625	2.567.056	80.569

Euroak milakotan

GASTUAK	AURREIKUSPENA		AURREIKUSPENA		OBLIG. KITAT.	ORDAINK. LIKIDOA	ORDAIN. GABEA
	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.	B. BETIK.			
1.- Langileen ordainsariak	A.3.1	68.673	662	69.335	65.763	65.738	25
2.- Ondasun arrunt eta zerbit. kontr.....		55.360	471	55.831	53.931	46.810	7.121
3.- Gastu finantzarioak		10.801	(947)	9.854	9.722	9.285	437
4.- Transferentzia arruntak	A.4.1	2.291.681	31.577	2.323.258	2.321.373	2.302.267	19.106
6.- Inbertsio errealak		54.176	(759)	53.417	48.179	34.661	13.518
7.- Kapitalezko transferentziak	A.4.1	60.196	18.666	78.862	48.919	32.338	16.581
8.- Finantza aktiboen bariazioa	A.6	3.238	1.364	4.602	4.508	4.054	454
9.- Finantza pasiboen bariazioa		63.941	-	63.941	63.941	63.941	-
GASTUAK, GUZTIRA		2.608.066	51.034	2.659.100	2.616.336	2.559.094	57.242
SARRERAK - GASTUAK		700	(700)	-	31.289	7.962	23.327

B. AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIERAKO		KOBRA./	
	ZORRA	BALIOG.	ORDAINK.	AZKEN ZORRA
Zordunak	298.336	(21.801)	(41.542)	234.993
Hartzekodunak	(57.823)	158	56.959	(706)
GUZTIRA	240.513	(21.643)	15.417	234.287

2019KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI JARRITAKO OHARRA

18/12/21eko Foru Gobernuaren Kontseiluaren 766 Erabaki bidez, AFAK bere gain hartu zuen GOFek Estatuko Administrazio Orokorraren aurrean zuen kobrantza-eskubidea, 2018-12-31n sortutako eta AMASetik kobratu gabeko diru-sarrerari zegokiena (13.933.858 euro), bermatutako gutxieneko maila.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. ZORPETZE-KONTU OROKORRA		Euroak milakotan
Maileguak.....		447.014
Bonoak		50.000
Beste batzuk		74
GUZTIRA		497.088

D. DIRUZAINZA		Euroak milakotan
AURREKONTUKO DIRUZAINZA		
Saldoa 19.1.1ean		168.574
Aurrekontuko kobrantzak		2.608.598
Indarreko ekitaldia.....	2.567.056	
Aurrekontu itxiak	41.542	
Aurrekontuko ordainketak		(2.616.053)
Indarreko ekitaldia.....	(2.559.094)	
Aurrekontu itxiak	(56.959)	
AURREKONTUKO DIRUZAINZA 19.12.31N		161.119
AURREKONTUZ KANPOKO DIRUZAINZA 19.12.31N		(60.706)
DIRUZAINZA ERABILGARRIA GUZTIRA 19.12.31N		100.413

E. KONPROMISO KREDITUAK		Euroak milakotan				
ETORKIZUNEN GASTUAK	ERANSK.	HASIERAKO KREDITUAK	ALDA- KETAK	ITXIERAKO KREDIT.	BAIMEND. KREDIT.	HITZARTU- TAKOAK
2.- Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak		131	276	407	259	229
4.- Transferentzia arruntak.....	A.4.1	830	33	863	853	847
6.- Inbertsio errealak		46.959	4.655	51.614	39.727	36.964
7.- Kapitalezko transferentziak	A.4.1	56.612	2.255	58.867	53.583	21.102
GUZTIRA		104.532	7.219	111.751	94.422	59.142
				2020. urtea		38.754
				2021. urtea		17.299
				2022. urtea		2.991
				2023. urtea		98



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

F. EKITALDIAREN EMAITZA ETA DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milakotan
AURREKONTU ARRUNTA 2019	
Eskubide kitatuak	2.647.625
Obligazio aitortuak	(2.616.336)
AURREKONTU ARRUNTAREN SUPERABITA	31.289
EKITALDI ITXIAK	
Eskubide kitatuak baliogabetzea.....	(21.801)
Obligazio aitortuak baliogabetzea	158
EKITALDI ITXIEN DEFIZITA	(21.643)
Kaudimengab. zuzkid. aldak.....	(20.174)
Horniduren bariazioa FEPEL	7.553
EKITALDIKO EMAITZA	(2.975)
DIRUZAINZTA GELDIKINA 18.12.31n	147.790
(Elkarfinantzatutako proiektuen finantzaketaren desbideratzeak).....	(40)
DIRUZAINZTA GELDIKINA 19.12.31n	144.775
Finantzaren doiketa	(30.149)
DOITUTAKO DIRUZAINZTA GELDIKINA 19.12.31n	114.626

DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza	100.413
Aurrekontu arruntaren zordunak	80.569
Aurrekontu itxien zordunak	234.993
Aurrekontu arruntaren hartzekodunak	(57.242)
Aurrekontu itxietako hartzekodunak.....	(706)
Aurrekontuz kanpok. (zordunak hartzekodunetatik garbi)	60.707
Huts egindakoen hornidura	(270.408)
FEPELerako hornidura	(3.509)
Elkarfinantzat. proiektuen finantzaketaren desbideratzea	(42)
DIRUZAINZTA GELDIKINA 19.12.31N	144.775
(Finantzaren doiketa).....	(30.149)
DOITUTAKO DIRUZAINZTA GELDIKINA 19.12.31N	114.626



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

G. EGOERAREN BALANTZEAK 2019 ETA 2018KO abenduaren 31n				Euroak milakotan		
AKTIBOA	ERANSKINA	2019	2018	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2019	2018
AKTIBO EZ ARRUNTA		870.673	892.989	ONDARE GARBIA	469.038	472.528
Ibilgetu ukiezina.....		17.862	17.250	Ondarea	223.574	223.574
Ibilgetu materiala		672.255	684.378	Sortutako ondarea	237.757	242.002
Epe luz. finantza inbertsioak taldeko, talde-anitzeko eta elkart. entitateetan	A.6	164.820	167.352	Balio aldaketagatiko doiketak (Estaldura eragiketak).....	(459)	(981)
Epe luz. finantza inbertsioak	A.6	15.736	24.009	Bestelako ondare gehikuntzak emaitzetara egozteko zain	8.166	7.933
				PASIBO EZ-ARRUNTA	439.434	448.142
				Epe luz. zuzkidurak	-	-
				E/luzeko zorrak	439.434	448.142
AKTIBO ARRUNTA		232.728	268.534	PASIBO ARRUNTA	194.929	240.853
Salgai dauden aktiboak		140	172	E/motzeko zuzkidurak	55.761	64.444
Izakinak		10.134	7.395	E/motzeko zorrak.....	64.642	65.610
Zordunak eta kobr. bst. kontu batzuk		118.247	114.051	Hartzek. eta ord. bst kontu batz.....	74.484	110.797
Epe motz. finantza inbert. taldeko, talde-anitzeko eta elkart. entitateetan		229	225	Aldizkatzeagatiko doikun.....	42	2
Epe motz. finantza inbertsioak.....		3.565	3.243			
Beste finantza inbertsio batzuk.....		3.000	4.000			
Eskud. eta best. aktibo likido baliokideak		97.413	139.448			
AKTIBOA, GUZTIRA		1.103.401	1.161.523	ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA	1.103.401	1.161.523



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

H. 2019KO ETA 2018KO EKIT. ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA		Euroak milakotan	
	2019	2018	
Zerga-sarrerak	2.463.848	2.380.469	
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	97.354	85.309	
Ekitaldiko transferentziak	97.078	84.985	
Ibilgetu ez finantzarioak dirulaguntzak egozteak	276	324	
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak	282	196	
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.	8.418	10.760	
Gehiegizko hornidurak	33.286	28.175	
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	2.603.188	2.504.909	
Langileen gastuak	(65.918)	(64.033)	
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(2.395.215)	(2.327.530)	
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(59.590)	(56.775)	
Ibilgetua amortizatzea	(50.535)	(50.385)	
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(2.571.258)	(2.498.723)	
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	31.930	6.186	
Balio narriadura eta ibilgetu ez finantzarioa			
besterenganatzeagatiko emaitzak eta aktiboak salgai	1.403	402	
Arruntak ez diren beste partida batzuk	671	1.706	
Diru-sarrerak	725	1.706	
Gastuak	(54)	-	
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	34.004	8.294	
Sarrera finantzarioak	192	194	
Gastu finantzarioak	(9.039)	(9.400)	
Finantza-aktibo eta -pasiboetako arrazoizko balioaren aldakuntza	(590)	(1.033)	
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(28.812)	(2.960)	
Taldeko, talde-anitzeko eta elkartutako entitateetakoak	(6.478)	(7.104)	
Beste batzuk	(22.334)	4.144	
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA	(38.249)	(13.199)	
EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA) GARBIA (GALERAK)	(4.245)	(4.905)	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUAK

A. 2018KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

	GOFÉ			GFE			AFS		
	AZKEN. AURREK.	KITAT. ESKUBID.	DIRUBILK. GARBIA	AZKEN. AURREK.	KITAT. ESKUBID.	DIRUBILK. GARBIA	AZKEN. AURREK.	KITAT. ESKUBID.	DIRUBILK. GARBIA
SARRERAK									
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	31.780	29.911	24.594	1.960	1.892	1.846	9	2	2
4.- Transferentzia arruntak.....	177.367	178.586	169.519	4.442	4.368	4.368	13.178	13.121	11.934
5.- Ondare sarrerak.....	1	-	-	-	-	-	17	14	-
7.- Kapitalezko transferentziak.....	2.241	2.241	189	44	42	42	235	282	129
8.- Aktibo finantzarioen bariazioa .	235	62	62	12	9	9	20	10	10
AURREK. ARRUNTA GUZTIRA	211.624	210.800	194.364	6.458	6.311	6.265	13.459	13.429	12.075
HONDAKINAK	20.624	20.624	13.634	196	196	193	536	536	486
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	232.248	231.424	207.998	6.654	6.507	6.458	13.995	13.965	12.561

Euroak milakotan

	GOFÉ			GFE			AFS		
	AZKEN. AURREK.	OBLIGAZ. LIKID.	ORDAINK. LIKID.	AZKEN. AURREK.	OBLIGAZ. LIKID.	ORDAINK. LIKID.	AZKEN. AURREK.	OBLIGAZ. LIKID.	ORDAINK. LIKID.
GASTUAK									
1.- Langileen ordainsariak	76.331	76.331	73.133	2.814	2.812	2.812	11.566	11.529	11.526
2.- Ondasun arrun. eta zerb. kont. .	95.761	94.914	85.723	2.871	2.734	2.632	1.554	1.551	604
3.- Gastu finantzarioak	1	-	-	-	-	-	-	-	-
4.- Transferentzia arruntak.....	37.720	37.707	36.740	716	709	589	8	6	-
6.- Inbertsio errealak	460	460	357	45	42	17	322	320	128
7.- Kapitalezko transferentziak.....	1.302	1.297	1.255	-	-	-	-	-	-
8.- Aktibo finantzarioen bariazioa .	49	49	49	12	11	11	9	9	9
AURREK. ARRUNTA GUZTIRA	211.624	210.758	197.257	6.458	6.308	6.061	13.459	13.415	12.267
HONDAKINAK	12.105	11.547	11.543	255	255	255	611	611	611
GASTUAK, GUZTIRA	223.729	222.305	208.800	6.713	6.563	6.316	14.070	14.026	12.878

B. EKITALDIAREN EMAITZA ETA DIRUZAINZTA GELDIKINA

Euroak milakotan

	GOFÉ	GFE	AFS
Eskubide kitatuak	210.800	6.311	13.429
Obligazio aitortuak.....	210.758	6.308	13.415
AURREKONTU ARRUNTAREN SUPERABITA (1)	42	3	14
Eskubide kitatuak baliogabetzea.....	-	-	-
Obligazio aitortuak baliogabetzea	558	-	-
EKILDI ITXIEN DEFIZITA (2)	558	-	-
Kaudimen-gab. zuzkid. aldak. (3)	(600)	(3)	(14)
EKITALDIAREN EMAITZA (1+2+3)	-	-	-
DIRUZAINZTA GELDIKINA 18.12.31n	6.600	-	1
DIRUZAINZTA GELDIKINA 19.12.31n	7.200	3	15
(Nekez egingarri diren eskubideak)	(7.200)	(3)	(15)
DIRUZAINZTAKO GELDIKIN ERABILGARRIA 2019-12-31N	-	-	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan		
	GOFE	GFE	AFS
Diruzaintza	867	439	319
Aurrekontu arruntaren zordunak	16.435	46	1.353
Aurrekontu itxien zordunak	6.990	3	50
Aurrekontu arruntaren hartzekodunak.....	(13.501)	(247)	(1.147)
Aurrekontu itxietako hartzekodunak.....	(3)	-	-
Aurrek. kanp. (hartzek. zordunetatik garbi).....	(3.588)	(238)	(560)
Huts egindakoen hornidura.....	(7.200)	(3)	(15)
DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA 19-12-31N	-	-	-

C. EGOERAREN BALANTZEAK 2019 eta 2018ko abenduaren 31n	Euroak milakotan					
	GOFE		GFE		AFS	
	2019	2018	2019	2018	2019	2018
AKTIBO EZ ARRUNTA	25.426	26.174	2.792	2.823	7.146	7.753
lbilgetu ukiezina.....	3	5	22	23	200	208
lbilgetu materiala.....	25.354	26.087	2.770	2.800	6.946	7.545
Epe luz. finantza inbertsioak	69	82	-	-	-	-
AKTIBO ARRUNTA	17.842	16.436	494	609	1.714	1.108
Zordunak eta kobr. bst. kontu batzuk.....	16.962	14.649	45	195	1.388	535
Epe motz. finantza inbertsioak.....	13	12	10	8	7	7
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.....	867	1.775	439	406	319	566
AKTIBOA, GUZTIRA	43.268	42.610	3.286	3.432	8.860	8.861
ONDARE GARBIA	25.439	26.187	2.702	2.831	7.153	7.761
Ondarea	40.818	40.831	5.139	5.091	9.429	9.446
Sortutako ondarea.....	(15.379)	(14.644)	(2.524)	(2.332)	(2.641)	(1.841)
Balio aldaketagatiko doiketak	-	-	-	-	-	-
Bestelako ondare gehikuntzak	-	-	87	72	365	156
PASIBO EZ-ARRUNTA	285	284	10	25	-	-
E/luzeko zorrak	285	284	10	25	-	-
PASIBO ARRUNTA	17.544	16.139	574	576	1.707	1.100
Zorrak epe motzera taldeko, talde anitzeko eta elkartutako entitateekin	-	-	73	-	19	11
Hartzek. eta ord. bst kontu batz.....	17.544	16.139	401	391	1.688	1.089
Aldizkatzeagatiko doikun.....	-	-	100	185	-	-
ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA	43.268	42.610	3.286	3.432	8.860	8.861



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

D. 2019 eta 2018ko ekitaldietako EKONOMIA-ONDARE EMAITZEN KONTUAK

Euroak milakotan

	GOFE		GFE		AFS	
	2019	2018	2019	2018	2019	2018
Zerga-sarrerak.....	-	-	-	(2)	1	11
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	180.861	172.057	4.394	4.432	13.193	11.149
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....	22.633	22.114	1.774	1.799	-	-
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	6.374	6.378	7	-	15	17
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	209.868	200.549	6.175	6.229	13.209	11.177
Langileen gastuak	(76.382)	(70.727)	(2.813)	(2.527)	(11.533)	(9.634)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(38.509)	(38.107)	(709)	(701)	(6)	(6)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(94.207)	(90.548)	(2.737)	(2.976)	(1.618)	(1.503)
Ibilgetua amortizatzea.....	(870)	(850)	(117)	(128)	(841)	(879)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(209.968)	(200.232)	(6.376)	(6.332)	(13.998)	(12.022)
KUDEAK. ARR. EMAITZA (AURR. EDO AURREZKI-EZA)	(100)	317	(201)	(103)	(789)	(845)
Balio narriadura eta ibilgetu ez finantzarioa						
besterenganatzeagatik emaitzak eta aktiboak salgai	-	-	-	-	3	-
Arruntak ez diren beste partida batzuk	-	(29)	12	-	-	-
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	(100)	288	(189)	(103)	(786)	(845)
Sarrera finantzarioak.....	-	-	-	-	-	-
Gastu finantzarioak.....	-	-	-	-	-	-
Balioaren narriadura, bajak eta finantza aktibo						
eta pasiboen besterentzeak.....	(600)	(1.000)	(3)	(1)	(14)	-
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA	(600)	(1.000)	(3)	(1)	(14)	-
EKIT. EMAIT. GARBIA (AURREZK. EDO AURREZKI-EZA)	(700)	(712)	(192)	(104)	(800)	(845)



V.3 FORU SOZIETATE PUBLIKOEN KONTUAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2019 ETA 2018KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

EGOERAREN BALANTZEA	AGA		Arabarri		Kalkulu Zentroa	
	2019	2018	2019	2018	2019	2018
AKTIBO EZ ARRUNTA	68.444	74.730	-	-	679	787
Ibilgetu ukiezina.....	8	16	-	-	-	-
Ibilgetu materiala.....	10.077	13.316	-	-	517	629
Ibilgetuko inbertsioak.....	32.665	36.421	-	-	-	-
Taldeko enpr. eta elkartutakoetan epe luzeko inberts.	23.587	23.064	-	-	156	156
Epe luz. finantza inbertsioak	2.107	1.913	-	-	6	2
AKTIBO ARRUNTA	24.948	27.195	672	579	3.157	2.682
Izakinak	19.309	24.178	666	573	-	-
Merkataritzako zordunak eta kobr. beste knt. b.	153	556	5	2	2.997	2.381
Finantza inbertsioak e/motz.	5.151	1.892	-	-	-	-
Aldizkakotzeak e/motz.	26	54	-	-	-	-
Eskudirua eta bestelako aktibo baliokideak	309	515	1	4	160	301
AKTIBOA, GUZTIRA	93.392	101.925	672	579	3.836	3.469
ONDARE GARBIA	78.751	80.384	218	181	2.023	1.906
Kapitala	86.196	86.196	76	76	1.808	1.808
Jaulkipen prima.....	9.472	9.472	-	-	-	-
Erreserbak.....	1.398	1.376	106	8	57	53
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	(27.187)	(33.551)	-	(247)	-	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	998	2.638	-	-	-	-
Ekitaldiko emaitza.....	(9.304)	(5.238)	36	344	116	3
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak	17.178	19.491	-	-	42	42
PASIBO EZ-ARRUNTA	7.365	14.084	-	-	-	-
Epe luz. zuzkidurak.....	230	230	-	-	-	-
E/luzeko zorrak	7.135	13.854	-	-	-	-
Taldeko enpresa eta elkartuekiko zorrak epe lab.	-	-	-	-	-	-
PASIBO ARRUNTA	7.275	7.457	454	398	1.813	1.563
E/motz. zuzkidurak	16	620	-	-	-	-
E/motzeko zorrak.....	804	3.709	-	-	68	63
Taldeko enpresa eta elkartuekiko zorrak epe lab.	-	-	452	398	1.745	-
Merkat. hartzekod. eta kobratz. beste knt. b.	6.455	3.128	2	-	-	1.500
ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA	93.392	101.925	672	579	3.836	3.469



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2019 ETA 2018KO abenduaren 31n	Euroak milakotan					
	Indesa 2010		Naturgolf		Arabako Bideak	
EGOERAREN BALANTZEA	2019	2018	2019	2018	2019	2018
AKTIBO EZ ARRUNTA	9.401	9.925	549	708	127.288	130.818
Ibilgetu ukiezina.....	132	97	4	6	127.228	130.768
Ibilgetu materiala.....	9.254	9.803	545	702	52	42
Taldeko enpres. eta elkartutakoetan epe luzeko inb...	12	22	-	-	-	-
Epe luz. finantza inbertsioak	3	3	-	-	8	8
AKTIBO ARRUNTA	4.800	3.491	67	78	4.275	2.514
Izakinak	282	315	22	17	-	-
Merkataritzako zordunak eta kobr. beste knt. b.....	3.716	2.766	29	42	1.473	1.136
Aldizkakotzeak e/motz.....	-	-	5	5	2	2
Eskudirua eta bestel. aktibo likido baliokid.....	802	410	11	14	2.800	1.376
AKTIBOA, GUZTIRA	14.201	13.416	616	786	131.563	133.332
ONDARE GARBIA	12.236	9.988	525	693	36.318	34.207
Kapitala	8.865	8.865	1.016	1.016	53.632	52.132
Erreserbak.....	1.456	-	5	5	6.757	6.757
Aurreko ekitaldien emaitza	-	(20)	(398)	(246)	(24.682)	(24.465)
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	329	1.000	453	450	-	-
Ekitaldiko emaitza.....	558	27	(586)	(601)	611	(217)
Balio aldaketagatiko doiketak	-	-	-	-	-	-
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak	1.028	116	35	69	-	-
PASIBO EZ-ARRUNTA	16	1.422	-	-	84.027	90.534
E/luz. zuzkidurak.....	16	-	-	-	825	1.178
Zorrak e/luz.....	-	1.069	-	-	83.202	89.356
Taldeko enpresa eta elkartuekiko zorrak epe lab.	-	353	-	-	-	-
PASIBO ARRUNTA	1.949	2.006	91	93	11.218	8.591
E/motz. zuzkidurak	80	31	-	-	-	-
Zorrak epe motz.	-	422	1	1	6.156	5.940
Taldeko enpresa eta elkartuekiko zorrak epe motz.	679	543	-	-	-	-
Merkat. hartzekod. eta kobratz. beste knt. b.	1.190	1.010	71	75	5.062	2.651
Aldizkakotzeak e/motz.....	-	-	19	17	-	-
ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA	14.201	13.416	616	786	131.563	133.332

-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. 2019KO ETA 2019KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	AGA		Arabarri		Kalkulu Zentroa	
	2019	2018	2019	2018	2019	2018
Negozio zifratik zenbateko garbia	1.630	1.200	-	-	13.145	11.911
Amaid. eta abian dauden produk. izakinetan bariaz.....	(6.190)	(505)	93	-	-	-
Hornikuntzak	(115)	(89)	(45)	-	(5.335)	(4.714)
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	1.015	900	-	356	13	16
Langileen gastuak	(624)	(567)	-	-	(7.440)	(7.026)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	(2.076)	(3.523)	(12)	(13)	(115)	(136)
Ibilgetua amortizatzea.....	(3.806)	(3.808)	-	(2)	(130)	(47)
Dirulag. ibilg.ez finantzaria eta bestel. egoztea	3.501	2.570	-	1.626	-	-
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza.....	(2.353)	(152)	-	(1.624)	-	-
USTIAPENAREN EMAITZA	(9.018)	(3.974)	36	343	137	4
EMAITZA FINANTZARIOA	(286)	(1.264)	-	-	1	-
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(9.304)	(5.238)	36	343	138	4
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	-	-	(22)	(1)
EKITALDIKO EMAITZA	(9.304)	(5.238)	36	343	116	3

B. 2019KO ETA 2018KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Indesa 2010		Naturgolf		Arabako Bidea	
	2019	2018	2019	2018	2019	2018
Negozio zifratik zenbateko garbia	14.462	14.013	443	397	9.496	9.067
Amaid. eta abian dauden produk. izakinetan bariaz.....	1	(5)	-	-	-	-
Hornikuntzak	(1.775)	(1.805)	(10)	(11)	-	-
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	4.583	3.824	160	154	28	-
Langileen gastuak	(14.242)	(13.126)	(323)	(319)	(335)	(325)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	(2.054)	(2.151)	(733)	(686)	(3.500)	(3.987)
Ibilgetua amortizatzea.....	(713)	(675)	(101)	(114)	(4.366)	(4.283)
Dirulag. ibilg.ez finantzaria eta bestel. egoztea	102	23	35	35	-	-
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza.....	204	(45)	(57)	(57)	-	-
18/2019 FD, argiteria publikoaren energia-aurrezpena, 2019	462	-	-
412/2019 DKE, Enplegua sortzeko programa	283	-	-
ENPRESA PRIBATUAK	5.875	621	
73/2019 DKE, Enpresen prestakuntza-laguntzak	236	-	-
270/2019 DKE, Merkataritza hobekuntza	155	-	-
861/2019 DKE Nekazaritza- eta ingurumen-neurriak.....	1.138	-	-
24/2019 FD, Aparteko laguntzak: Makineria	287	250	-
11/2019 FD, Nekazaritzako ustiatuegien inbertsioak	1.603	371	-
72/2017 DKE, Garraio publikoa finantzatzea Arabako Errioxan	830	-	-
71/2017 DKE, Garraio publikoa finantzatzea Aiaran.....	701	-	-
73/2017 DKE, Garraio publikoa finantzatzea Erdialdeko Araban	925	-	-
IRABAZI ASMORIK GABEKO FAMILIAK ETA ERAKUNDEAK	3.778	614	
73/2019DKE, Irabazi asmorik gabeko erakund. prestakuntza-laguntzak 282	-	-	-
28/2019 FD, abeltzaintzako laguntzen plana. Deialdi berria	486	114	-
231/2019 DKE, ureztaketak modernizatzeko laguntzak. Deialdi berria	489	500	-
87/2019 DKE, Tarifa Plana AP-1	1.202	-	-
87/2019 DKE, Gizarte bidesaria AP-68	408	-	-
368/2019, DKE Eskola-kirola	591	-	-
201/2019 DKE. Kirol federazioekin hitzarmenak	320	-	-
GUZTIRA	35.748	9.892	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.9 ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU BATERATUAK

ALHren Kontu Bateratuak honako hauek dira:

A. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	AURREIKUSPENA			ESKUBIDE KITAK.	DIRU-BIL. LIKIDOA	KOB.R. GABEA
	HASIER.	ALDAK.	B.BETIK			
1. Zerga zuzenak	1.111.690	24.970	1.136.660	1.164.031	1.127.273	36.758
2. Zeharkako zergak	1.298.733	-	1.298.733	1.307.856	1.278.192	29.664
3. Tasak eta bestelako sarrerak	50.157	50	50.207	51.697	37.047	14.650
4. Transferentzia arruntak	98.261	1.014	99.275	106.078	98.318	7.760
5. Ondare-sarrerak.....	497	-	497	467	369	98
6. Inbertsio errealen besterentzea	2.786	804	3.590	2.418	2.297	121
7. Kapitalezko transferentziak	7.886	(1.331)	6.555	7.168	4.135	3.033
8. Aktibo finantzarioen bariazioa	25.999	24.819	50.818	210	207	3
9. Pasibo finantzarioen bariazioa.....	63.941	-	63.941	55.000	55.000	-
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	2.659.950	50.326	2.710.276	2.694.925	2.602.838	92.087

Euroak milakotan

GASTUAK	AURREIKUSPENA			OBLIG. KITAK.	ORDAINK. LIKIDOA	ORDAIN. GABEA
	HASIER.	ALDAK.	B.BETIK			
1. Langileen ordainsariak	156.288	3.758	160.046	156.435	153.210	3.225
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak.....	157.344	(1.326)	156.018	153.131	135.871	17.260
3. Gastu finantzarioak.....	10.801	(947)	9.854	9.722	9.285	437
4. Transferentzia arruntak	2.152.999	27.943	2.180.942	2.179.119	2.163.154	15.965
6. Inbertsio errealak	55.425	1.782	57.207	49.000	35.188	13.812
7. Kapitalezko transferentziak	59.133	18.463	77.596	47.652	33.233	14.419
8. Aktibo finantzarioen bariazioa	3.319	1.353	4.672	4.578	4.123	455
9. Pasibo finantzarioen bariazioa.....	63.941	-	63.941	63.941	63.941	-
GASTUAK, GUZTIRA	2.659.250	51.026	2.710.276	2.663.578	2.598.005	65.573
SARRERAK - GASTUAK	700	(700)	-	31.347	4.833	26.514

B. AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIER.	BALIOG.	KOB.R/ ORDAINK	AZKEN
	ZORRA			ZORRA
Zordunak	319.691	(21.801)	(55.854)	242.036
Hartzekodunak	(70.794)	717	69.368	(709)
GUZTIRA	248.897	(21.084)	13.514	241.327



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. EKITALDIAREN EMAITZA ETA DIRUZAINNTZA GELDIKINA		Euroak milakotan
AURREKONTU ARRUNTA 2019		
Eskubide kitatuak.....		2.694.925
Obligazio aitortuak		(2.663.578)
AURREKONTU ARRUNTAREN SUPERABITA		31.347
EKITALDI ITXIAK		
Eskubide kitatuak baliogabetzea		(21.801)
Obligazio aitortuak baliogabetzea		717
EKITALDI ITXIEN DEFIZITA		(21.084)
Kaudimengab. zuzkid. aldak.		(20.789)
Horniduren bariazioa FEPEL.....		7.553
EKITALDIKO EMAITZA		(2.973)
DIRUZAINNTZA GELDIKINA 19.12.31n (finantziazio desbideratzerik gabe)		147.790
Elkarfinantzatutako proiektuen finantzaketaren desbideratzeak		(42)
DIRUZAINNTZA GELDIKINA 19.12.31n		144.775
Finantzaren doiketa		(30.149)
DOITUTAKO DIRUZAINNTZA GELDIKINA 19.12.31n		114.626

D. EGOERAREN BALANTZE BATERATUA			Euroak milakotan		
AKTIBOA	2019	2018	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2019	2018
AKTIBO EZ ARRUNTA	900.991	935.346	ONDARE GARBIA	422.995	426.104
Ibilgetu ukiezina.....	145.460	148.374	Ondarea	265.406	264.732
Ibilgetu materiala	727.769	745.300	Sortutako ondarea	144.557	137.401
Ibilgetuko inbertsioak.....	32.666	36.474	Balio aldatetagariko doiketak	(459)	(981)
Finantza inbertsioak e/luz.			Bestelako ondare gehikuntzak		
taldeko enpresa eta elkartuetan	4	4	emaitzetara egozteko zain	13.491	24.952
Epe luz. finantza inbertsioak	(4.908)	5.194			
AKTIBO ARRUNTA	275.723	317.980	PASIBO EZ-ARRUNTA	531.138	554.109
Salgai dauden aktiboak.....	140	172	Epe luzeko hornidurak	1.055	1.409
Izakinak	30.414	32.479	E/luzeko zorrak	530.054	552.700
Zordunak eta kobr. bst. kontu batzuk	130.160	130.985	Taldeko erakunde eta elkartuekin		
Finantza inbertsioak e/motz.			epe luzeko zorrak	29	-
taldeko enpresa eta elkartuetan	5.265	248			
Epe motz. finantza inbertsioak	6.589	9.155	PASIBO ARRUNTA	222.581	273.113
Aldizkatzeagatiko doikun.....	33	61	E/motz. zuzkidurak	55.858	65.094
Eskud. eta bst. akt. lik. baliokideak			E/motzeko zorrak.....	71.691	75.755
(Diruzaintza)	103.122	144.880	Taldeko eta elkartutako entitateekin		
			zorrak e/lab	(2.642)	-
			Hartzek. eta ord. bst kontu batz.....	97.514	132.059
			Aldizkatzeagatiko doikun.....	160	205
AKTIBOA, GUZTIRA	1.176.714	1.253.326	ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZT.	1.176.714	1.253.326



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E. ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTU BATERATUA	Euroak milakotan	
	2019	2018
Zerga-sarrerak.....	2.463.849	2.380.478
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	116.649	103.571
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....	42.103	42.634
Amaitut. eta fabrikaz. dauden produk. izakinen bariazioa eta balioaren narriadura.....	(6.095)	(510)
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	20.600	22.560
Hornidura gehiegizkoak.....	33.286	28.273
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	2.670.392	2.577.006
Langileen gastuak.....	(179.610)	(168.291)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	(2.235.501)	(2.190.162)
Hornikuntzak.....	(7.280)	(6.620)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.....	(142.669)	(140.238)
Ibilgetua amortizatzea.....	(61.482)	(61.175)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(2.626.542)	(2.566.486)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	43.850	10.520
Ibilgetu ez finantzarioaren eta salgai dauden aktiboen balio-narriadura eta besterenganatzeagatik emaitzak.....	(606)	181
Arruntak ez diren beste partida batzuk.....	487	1.649
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	43.731	12.350
Sarrera finantzarioak.....	253	275
Gastu finantzarioak.....	(9.881)	(10.449)
Finantza-aktibo eta -pasiboetako arazoizko balioaren aldakuntza.....	(590)	(1.033)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak.....	(29.676)	(4.886)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA	(39.894)	(16.093)
EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA) GARBIA (GALERAK)	3.837	(3.743)



ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2019KO KONTU OROKORRARI BURUZKO FISKALIZAZIO TXOSTENAREN INGURUKO ALEGAZIOAK

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. *Diputatuen Kontseiluak abenduaren 18ko 53/1992 FAren 125. artikuluan aurreikusitako salbuespenezko prozedura bitartez, ALHren Ekonomia eta Aurrekontuen Araubideari buruzkoak, 2019ko 581.090 euroren gastuak baliokidetu ditu (37.079 euro AFarenak, 450.000 euro AFSrenak eta 94.011 euro GOFErenak); Kontu-hartzaitzak edo Kontabilitate Zerbitzuak, baina, baliokidetze horren aurkako txostena egin zuen. Honako hauek izan dira egindako ez-betetzeak: publikotasun eta lehia printzipioak ez gordetzea; kontratuak aldatzea aurretik horretarako eskumena duen organoaren onespena jaso gabe eta gastua kontratua sinatu aurretik egitea (ikus A.7.1).*

ALEGAZIOA

Aurreko espedienteetan abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoak, jasotako prozedurak xedatzen duenez jardun du Aldundiak, hirugarrenei kalteak saihesteko, barne kontroleko organoek kontratuei buruzko araudian edo lankidetzaz hitzarmenean bertan ez betetzeak sumatu zituzten espedienteen izapidetzea baliozkotuz.

2. *GOFEk, Kalkulu Zentroa SAk, Indesa 2010 SLk eta Urbide Arabako Ur Partzuergoak zenbait zerbitzu eta hornidura kontratatu dituzte publikotasun eta lehia printzipioak bete gabe (ikus A.7.2, A.7.5 y A.7.7).*

	Euroak
GOFE.....	335.773
KALKULU ZENTROA SA	125.723
INDESA 2010 SL	60.046
URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA.....	98.977

ALEGAZIOA

GOFEren kasuan, aurreko iritzian aipatutako kontratazioetako bi lizitatuta egon dira alegazio hauek egin direnerako (aisialdi eta astialdiko jarduerak GOFEren egoitzetan eta kontsumoko osasun materiala). Garbiketako produktuei dagokienez, lanean ari da beharrianak aztertu eta hautemateko, ezaugarriak definitzeko eta aurretiazko analisiak egiteko, gero kontratazio espedientea izapidetzeko.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ARABAKO KALKULUGUNEA SA zentroak bi hornitzaileekin egindako kontratazioei dagokienez, ezin dugu bat etorri adierazitako iritziarekin, kasu guztietan kontratu txikia erabili delako. SPKLn 15.000 eurotik beherako zerbitzuen kontratazioetarako dago ezarrita kontratu mota hori. Kontuan hartu behar da kontratu horietako bakoitzaren xede izan ziren prestazioak erabat ezberdinak izan zirela kualitatiboki eta ez zutela unitate bat osatzen, eta hala zegoen justifikatuta adjudikatutako kontratu txiki bakoitzaren beharra azaltzen duen txostenean. Kontratu horietako batzuek arduradun ezberdinak zituzten gauzatzeko.

INDESA 2010 SL sozietatearen kasuan, galdarak mantentzeko lanei dagokien akatsa - 60.046 euro- 2020an zuzendu zen, baldintza teknikoan agiria prestatzeko lanak amaitu eta, lizitazio berean, lote berezietan, ikuztegi industrialerako instalazioetako galdarak mantentzeko lanekin batera, sozietatearen gainerako instalazioetako mantentze zerbitzuak sartu ondoren. Lizitazioa prozedura irekiaren eta izapidetze arruntaren bidez onartu zen, urteko 135.07,61 euroko (BEZa barne) gehieneko aurrekontuarekin, sozietatearen administrazio kontseiluak 2020ko uztailaren 30ean bileran hartutako erabakiaren bidez. Euskadiko kontratazio plataforman publizitatu zen erabaki hori.

Epaitegi honen iritziz, 1. eta 2. paragrafoetan azaldutako ez betetzeengatik izan ezik, ALH osatzen duten erakundeek (ikus I. Sarrera) zentzuz bete dute 2019an euren jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duen legezko araudia.

II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, 2019ko Aurrekontuaren Likidazioan jasotako 1. Oharrean azaldutakoa aintzat hartuta, Arabako Lurralde Historikoa osatzen duten erakundeen kontuek (Ikus I. Sarrera) alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2019ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO OHARRAK

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- *Likidazioan dagoen Arabako Kultur Ondare Eraikia Kudeatzeko SAREN 2019ko ekitaldirako aurrekontua ez dute onartu sozietatearen likidatzaileek.*



ALEGAZIOA

Arabako Lurralde Historikoko 2019rako aurrekontuen proiektua prestatu zenean, aurreikuspena zen sozietate horren likidazioa 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen egingo zela (teorian, data horretan zen jartzeko indarrean aurrekontua). Aurreikuspen horren ondorioz, likidazio prozesuan zegoen Arabarri Arabako Kultur Ondare Eraikia Kudeatzeko SAren aurrekontuaren aurreproiektua ez zen sartu 2019rako Aurrekontua Betearazteko Foru Arauaren proiektuan. Hala ere, finantzen eta aurrekontuen egonkortasunaren analisisan sartu egin ziren likidazio prozesuan zeuden foru sozietate publikoak, zero balioko sarrera eta gastuekin.

Azkenik, sozietate horren likidazio prozesua ez zen amaitu aurrez ikusitako datetan; 2019ko ekitaldian zehar luzatu zen eta, tarte horretan, likidazio prozesurako ezinbestekoak ziren eragiketak baino ez ziren egin.

- *Araba Garapen Agentzia SAU, Kalkulu Zentroa SA, Indesa 2010 SL eta Naturgolf SA sozietateek ez zuten hasieran onetsitako aurrekontua aldatu 71/2018 Foru Dekretuan aurreikusitako xedapenetara egokitzeko, zeinak 2019ko ekitaldian Arabako Lurralde Historikoaren 2018ko aurrekontuen luzapena aplikatzeko irizpideak ezartzen baititu.*

ALEGAZIOA

Aurreko paragrafoan adierazitako akatsa jada hauteman zen Arabako Foru Aldundiak egindako legea betetzeari buruzko txostenetan, baina izaera formala baino ez du, ekitaldi baten urtarrilaren 1an oraindik indarrean jarri gabe badaude aurrekontu berriak, berez eta besterik gabe luzatzen baita aurrekoa (Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Erregimenari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, 87.1 artikulua). Kasu horretan, ez da berez beharrezkoa Gobernu Kontseiluak edo foru sektore publikoak osatzen duten erakundeetako zuzendaritza organoek inolako akordiorik hartzea.

III.2 ZERGA SARRERAK

AFAk eskuz kudeatzen ditu egoera berezietan emandako geroratze eta zatikapenak, geroratze kontua, errekurritutako zerga-zorra eta ordaindu gabeko zorra Derrigorrezko diru-bilketa agentziara igortzea. Kudeaketa-informazioaren kalitatea hobetu behar luke prozesuak automatizatu eta diru-bilketa zerbitzuak emandako informazioa kontabilitatean jasoz.

ALEGAZIOA

Esan behar da abian dagoela Arabako Foru Aldundiaren ekonomia, aurrekontuak eta finantzak kudeatzeko aplikazio informatiko berri bat ezartzeko proiektu bat eta haren irismenean zerga sarreraren tratamendua sartzen dela, aurreko paragrafoan jasotako gomendioan adierazitako ildotik.

III.3 LANGILEAK

- *Naturgolf SAK izaera finkoko hiru kontratazio egin ditu (zerbitzari laguntzailea), sozietatearen egiturazko plantillan jasota ez daudenak. Taberna artatzeko langileak kontratatzearen arrazoia da ezinezkoa izan dela zerbitzu horren kudeaketa kanpora ateratzea 2019ko ekitaldian. 2020ko ekitaldian zerbitzua kontratatu da, eta langileen kontratuak urtarrilaren 31n deuseztatu dira.*

ALEGAZIOA

2015. urtearen amaieratik, eta egoeraren ondorioz, NATURGOLF SAK zuzenean gauzatu behar izan zuen ordura arte kanpoan egiten zen jarduera bat, Izki Golf taberna-jatetxearen kudeaketa hain zuzen, golf-zelaiari hasiera-hasieratik izan den ostalaritza zerbitzuari eusteko zelaiaren instalazioetan. Hala egin behar izan zen hutsik geratu zelako zerbitzua ustiatzeko kontrataziorako lehiaketa, enpresa interesdunek ez baitzuten parte hartu.

Aurrekoa kontuan hartuta, NATURGOLF SAK ostalaritzako sektorean espezializatutako langileen talde bat eratu behar izan zuen, eta, horretarako, aldi baterako kontratatu zituen zerbitzari laguntzaileen kategoriako langileek, sozietateak uste baitzuen egoera hori behin-behinekoa izango zela. Orduetik aurrerako ekitaldietan zenbait aukera aztertu ziren, baina ez ziren gauzatu taberna-jatetxearen ustiapenaren azpikontratazioa konpondu arte. 2020an lortu zen konponbide hori.

2019an zehar, sozietateak egiturazko plantillan jasota ez zeuden hiru kontratu finko egin zituen. Ez zeuden plantillan jasota ondoren azaltzen diren elementu baldintzatzaileak direla eta:

- 2019ko ekitaldiko aurrekontua luzatzearen ondorioz, ezinezkoa izan zen sozietatearen egiturazko plantilla handitzea.
- 2018ko ekitaldiaren amaieran, NATURGOLF SAK Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jakinarazpen bat jaso zuen, non eskatzen baitzitzaion aldi baterako kontratuak erregularitzatzeko, eta iraupen mugagabeko kontratazio bihurtzeko.

- *AFSk 2018ko EPEren deialdia handitu du, bederatzi lanpostu barne hartuta. Lanpostu horiek hautaketa-prozesuan zehar sortutako lanpostu hutsei dagozkien arren, ez dago urteko EPEan berariaz onartutako euskarririk lanpostu horiek behar bezala betetzen direla bermatzeko.*

ALEGAZIOA

Aurreko paragrafoan adierazitako akatsak Arabako Foru Aldundiak egindako legea betetzeari buruzko txostenetan jaso zen.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.4 KONTRATAZIOA

AFAk 2019an 48,1 milioi euroan formalizatutako 16 espedienteren lagina aztertu dugu eta AFAk aurreko urteetan esleitutako beste 22 espedienteren jarraipena, 2019an 35,5 milioi euroren egikaritza izan dutenak. Zera ikusi dugu:

- AFAk esleipenerako ezarritako gehieneko epea gainditu du 13,2 milioi euroan esleitutako obra-kontratu batean, bost zerbitzu-kontratutan, hornidura batean eta zerbitzu publikoaren kudeaketa batean (ikus A.7.1, 1, 4., 5, 6, 8, 10, 14 eta 16 zk. espedienteak).
- Hamar egun baino gehiago igaro dira kontratua formalizatu denetik EBAOn bidali arte, 8,3 milioi euroan esleitutako lau zerbitzu-kontratutan eta kontratu misto batean (ikus A.7.1 1, 2, 5, 13 eta 14 espedienteak), eta ez da EBAOn argitaratu 1,2 milioi euroan esleitutako bi zerbitzu-kontraturen esleipen-iragarkia (ikus A.7.1 7 eta 8 espedienteak).
- Hamabost egun baino gehiago igaro dira kontratua formalizatu zenetik kontratatzailearen profilean argitaratu zen arte, 16,9 milioi euroan esleitutako obra-kontratu batean, hiru zerbitzu-kontratutan eta hornidura-kontratu batean (ikus A.7.1, 1, 3, 12, 13 eta 14 espedienteak).
- Ez da errespetatu kontratuaren esleipena jakinarazten denetik kontratua sinatu arteko hamabost egun baliouduneko gutxienezko epea, AFAk 11,5 milioi euroan eta 597.625 euroan hurrenez hurren esleitutako kontratazio-arloko errekurtsio bereziaren mendeko zerbitzu-kontratu batean eta hornidura-kontratu batean (ikus A.7.1, 3 eta 7 zk. espedienteak).
- Guztira 39,5 milioi euroan esleitutako hamar espedientetan, ez da onartu kontratua kontratatzailearen profilean (ikus A.7.1, 3, 4, 7, 9, 10, 11, 12, 13, 14 eta 15 zk. espedienteak).
- Ez da onartu AFAk 2,6 milioi euroan esleitutako obra-kontratu baten lan-programa (ikus A.7.1, 4. espedienteak).
- 39,4 milioi euroan esleitutako hiru kontratutan, lanei dagokien hilabetearen hurrengoaren lehenengo hamar egunak igaro ondoren egiten da obra-ziurtagiria (ikus A.7.1 9., 25 eta 32 zk. espedienteak).

ALEGAZIOA

Aurreko paragrafoetako ohar gehienak kontratuei buruzko araudian bertan aurreikusitako izapideetarako ezarrita dauden hainbat epe ez betetzearen ingurukoak dira; alabaina, Arabako Foru Aldundiaren barne kontrolaz arduratzen diren organoek horretaz konturatu dira kasu gehienetan, eta ez dira kontratazio administratiboa eraentzen dituzten irizpideak urratu.

Kontratuaren formalizazioa EBAOn berandu argitaratu zela dioen oharra dela eta, esan behar da, 2. espedienteari dagokionez (software tresnen irtenbide integratua eskuratzea), kontratuaren formalizazioaren iragarkia 2019/12/12an argitaratu zela EBAOn, hau da,



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

kontratua burutu eta 14 egunera (2019/11/28an burutu zen). Beraz, bete egin zen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 154.1 artikuluan ezartzen duen 15 eguneko gehieneko epea.

Zenbait kontratu kontratatzailearen profilean ez direla argitaratu dioen oharrari dagokionez, kasu horretan ere ez da urratu kontratazio administratiboan aplikatu beharreko publikotasun printzipioa, kontratatzailearen profilean adjudikazioaren datu garrantzitsuenak (epea, adjudikazioduna eta zenbatekoa) argitaratu baitira.

- *Kontratuaren aldaketak onartu dira hiru obra-kontratutan, eta, horien ondorioz, aurrekontua handitu eta epea luzatu da, ase beharreko premien aurretiko definizio desegokiaren ondorioz; izan ere, aldaketa justifikatzen duten arrazoiak ez dira gerora sortutako inguruabarren ondorio (ikus A.7.1, 17, 21 eta 35 zk. espedienteak).*

ALEGAZIOA

AFA ez dago ados bete beharreko beharrianen aurretiazko definizioa desegokia dela dioen HKEEren ebaluazioarekin, arduradun teknikoek ukitutako kontratu bakoitzerako adierazitako arrazoiengatik:

- 17. espedientea (Espejoko SISEU handitzeko obren exekuzioa. 2019ko aldaketa).

Uste dugu epearen luzapena ez zela gertatu bete beharreko beharrianen aurretiazko definizioa desegokia zelako, obrako zuzendariaren 2018ko azaroaren 19ko txostenean azaltzen den legez, hau izan baitzen epea luzatzeko arrazoiak: «urriaren 28tik aurrera izandako etengabeko euriteak eta, estalkia iragazgaizteko lanak egin gabe zeudenez, eraikina urak hartuta egon da azaroaren 19ra arte». Espedientean, obraren egoerari buruzko dokumentazio grafiko ugaria dago.

Kontratuaren aldaketari dagokionez, ez zen iritsi kontratuaren prezioaren ehuneko 10era; beraz, ez ziren aldatu kontratuaren lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak. Horrez gainera, espedientean obrako zuzendariaren txosten bat dago, non justifikatzen baita aldaketak hobetu egiten zuela proiektua. Halaber, aldaketa indarrean zegoen legeriaren arabera zela dioten txosten bat dago.

- 35. espedientea (Amurrioko ur-biltzeetako emariak garraiatzeko hoditeriaren obrak. 2019ko aldaketa).

Kontratuaren aldaketa onartzeko proposamenean, arrazoi hauek adierazi ziren beharra azaltzeko:

- Errepide Zerbitzuak eta ADIFek ezarritako baldintzen ondorioz, gehitu egin behar izan dira hasierako proiektuan ukitutako errepideen eta trenbideen azpian zoruan sartzeko aurrez ikusitako zutoinen ezaugarriak.



- Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoak eskatuta, aldatu egin behar izan da hodi berriaren trazatua Izoriako EUAra iristeko puntuan, nahaste ganberarekin konektatu beharrean ur gordinaren biltegiarekin konektatzeko. Halaber, aldatu egin behar izan da ponpatze estazioa, erakunde horrek Izoriako EUAren instalazioetan atondu nahi duen tailerrerako eraikin berrian integratu ahal izateko. Oraingo egoera biltegiaren gaur egungo ustiatzailea den Partzuergoarekin batera sakon aztertu ondoren, proiektuan jasotako Aspuruako biltegia egokitzeko lanek proiektuan justifikatu beharreko partida goratu gisa aurrez ikusitakoa baino inbertsio handiagoa behar du.
- Hodien 6 km-ko ibilbidean zeharkatzen diren hiriko eremuetan hautemandako ukitutako zerbitzu berriak jarri behar izan dira, baita ainguraketak eta horma-zorroak ere, hoditeriaren egonkortasuna eta funtzionamendua bermatzeko.

Jarraian, goian adierazitako jarduketak aurrez ikusteko ezintasuna justifikatzen da.

1. ERREPIDE ZERBITZUAK EZARRITAKO BALDINTZAK

- Obrak egiteko baimen eskabidea 2018ko otsailaren 15ean bidali zen.
- Obrak egiteko baimena 2018ko abenduaren 3an jaso zen, eta obren zuinketa akta 2018ko urriaren 9an sinatu zen.

Baimen horretan eskatzen zen proiektuan definitutako zoruan sartu beharreko zutoinetako bat handitzeko, etorkizunean A-625 errepidea hobetzeko lanak egiten baziren ere. Eskakizun honek hertsiki beharrezkoa dena gainditzen du A-625 errepidearen oraingo egoera kontuan hartuta, eta, justifikazio gisa, Errepide Zerbitzuak esan zuen ez zituela hipotekatu nahi «A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihasbidearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko proiektua»ren barruko obrak. Obra horiek oraindik exekutatu gabe daude eta alderdi hori ezin izan zuen aurrez ikusi urez hornitzeko hoditeriaren proiektua idatzi zuen taldeak, ez zeukalako A-625 errepidea berritzeko proiektu horren berri.

2. ADIF-EK EZARRITAKO BALDINTZAK

- Obrak egiteko baimen eskabidea 2018ko otsailaren 15ean bidali zen.
- Eskabidearen erantzun gisa, mezu elektroniko bat jaso zen 2018ko apirilaren 10ean. Haren bidez, dokumentazio osagarria eskatu zuten.
- 2018ko apirilaren 16an bidali zuen Aldundiak eskatutako dokumentazio osagarri hori.
- 2018ko maiatzaren 23an ADIFen mezu elektroniko bat jaso zen, non gurutzagunea trenbide azpiko tinkatzearen bidez egiteko proposamenean zenbait doikuntza egiteko eskatzen baitzuten.



- Aldundiak gurutzaguneari buruzko proposamen berri bat bidali zuen 2018ko ekainaren 4an, ADIFek erreklamaturako doikuntza berriak aintzat hartuta.
- 2018ko azaroaren 30ean ADIFen baimena jaso zen.

Proiektua idatzi duen taldeak ezin izan zituen kontuan hartu ADIFen eskakizun berriak informazio hori obrak hasi ondoren eman baitzen (2018ko urriaren 9a).

3. KANTAUURIKO URKIDETZA UR PARTZUERGOA

- «Proiektu aldatua, beste proiektu honena: Amurrioko ur-biltzeetako emariak Askarganetik Izoriako EUAra eramateko hoditeriaren eta trataturako ura Larrinbeko, Aspuru eta Iperragako ur biltokietara (denak ere Araban daude) eramateko hoditerien proiektua» Foru Gobernuaren irailaren 19ko 529/2017 Erabakiaren bidez onetsi zen. Erabaki hori eta proiektuaren dokumentua Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoari helarazi zitzaion.
- Idatzitako proiektua eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin ezarritako harremana oinarri hartuta, Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoak Gobernu Batzordeak proiektua onesteko hartutako erabakia bidali zuen, eta eskatu zuen hoditeriaren diametroa aldatzeko tarte batean, etorkizunean Bizkaiko zenbait herrigune hornitzeko aukera izateko.
- Eskatutakoa aintzat hartuta, eskatutako doikuntza egin zen eta obrak kontratatzeko prozedura hasi zen Foru Gobernuaren maiatzaren 15eko 242/2018 Erabakiaren bidez.
- 2018ko azaroaren 18an, obrak hasita zeudenean, partzuergo horren beste idazki bat jaso zen. Haren bidez, azpiegiturei zegozkien zenbait doikuntza egiteko eskatzen zuten.

Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoari, instalazioen ustiatzailea izango denez –hala agerrarazi da txosten honetan–, kontsulta egin bazitzaion ere eta proiektuan jasotako azpiegituren berri bazuen ere, obrak hasi ondoren ikusi zuen erakunde horrek hasierako proiektuan jasotako eta onartutako obren gainean doikuntza berriak eskatzeko beharra.

Inguruabar hori ezin izan zuen aurrez ikusi proiektua idatzi zuen taldeak, zeinak partzuergoarekin hasierako proiektuan adostutako beharrianak eta eskakizunak kontuan hartuta idatzi baitzuen proiektua. Izan ere, lehenago adierazi den bezala, aurretiaz ere egin ziren doikuntza batzuk partzuergoak egindako beste eskaera batzuk aintzat hartuta.

4. UKITUTAKO ZERBITZUAK, AINGURAKETAK ETA HORMA-ZORROAK.

Proiektuan obren eraginpean egon zitezkeen zerbitzuak ikertu eta jaso baziren ere, obrak egiten ari ziren bitartean hoditeria batzuk agertu ziren, aurretiaz hauteman ezin izan zirenak azpiegitura zaharrak zirelako. Ez zeuden erregistratuta, hiri-bilbean integraturako euri-urak hartzeko hodiak zirelako. Azpiegitura horiek ez zituen ezein konpainiak edo sektoreko erakundek kudeatzen eta, ondorioz, zaila zen haien identifikatzea.



Obrek zeharkatuko duten lurra gaingiroki ikertzea eta ezaugarritzeko aukera egon arren, 6 km-ko luzera duen hoditeria lineal bat denez, ziurgabetasun maila batekin egin behar da proiektua, eta, kasu honetan, zeuden baldintzak ikusita, obrak egiten ziren bitartean, egonkortasuna eta segurtasuna ainguraketen eta horma-zorroen bitartez hobetzea izan zen helburua.

- *Azken ziurtagiria onesteko epea (3 hilabete, harreratik zenbatzen hasita) gainditu egin da 1,4 milioi euroan esleitu diren bi obra-kontratutan (ikus A.7.1; 25 eta 34 zk. espedienteak).*

ALEGAZIOA

Lehenago esan den bezala, aurreko paragrafoan jasotako oharra kontratuei buruzko araudian bertan ezarritako epe bat ez betetzeari buruzkoa da; alabaina, Arabako Foru Aldundiaren barne kontrolaz arduratzen diren organoek horretaz konturatu dira, eta ez dira kontratazio administratiboa eraentzen dituzten irizpideak urratu.

- *Obra ziurtagiriak edo emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak atzerapenez onartu dira, ondasunak egiaz entregatu edo zerbitzua eman eta hurrengo hogeita hamar egunak igaro ondoren honako espediente hauetan: 2019an esleitutako bi kontratutan (ikus A.7.1, 7 eta 16 zk. espedienteak) eta lehenagoko ekitaldietan esleitutako bost espedientetan (ikus A.7.1, 21, 32, 36, 37 eta 38 zk. espedienteak). Metatutako zenbatekoak 91.754 eurorenak eta 694.655 eurorenak izan dira, hurrenez hurren.*
- *Prezioaren ordainketa egin da hogeita hamar egunak igaro ondoren, obra ziurtagiriak edo emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak onartu zirenetik, honako espediente hauetan: 2019an esleitutako zortzi kontratutan (ikus A.7.1, 4, 8, 9, 10, 11, 12, 13 eta 14 zk. espedienteak) eta lehenagoko ekitaldietan esleitutako hamabi kontratutan (ikus A.7.1, 20, 22, 23, 24, 26, 27, 31 eta 31 zk. espedienteak). Metatutako zenbatekoak 953.854 eurorenak eta 3,6 milioi eurorenak izan dira, hurrenez hurren.*

ALEGAZIOA

Kontratuei buruzko araudian kontratua behar bezala gauzatu dela egiaztatzen duten agiriak onartzeko ezarritako epeak gainditu direla dioten oharrei dagokienez, esan behar da, ordainketa egiteko, oro har, ez direla oso esanguratsuak izan Arabako Foru Aldundiaren jardueraren multzoan, ekitaldiko fakturen % 9,48 baino ez baita fakturak kontratuei buruzko araudian ezarritako gehieneko epea baino beranduago ordaindu diren eragiketen ehunekoak. Nolanahi ere, 2018an erregistratutako fakturak ordaintzeko batez besteko epea 17,01



egunekoa izan da, gastua onartu zen egunetik erakundeak materialki ordaindu zuen egunera arte igarotako egun naturalak kontuan hartuta, eta batez beste legezko epea bete dela egiaztatzen du horrek.

2019an erakunde autonomoek formalizatutako espedienteen lagin bat aztertu, aurreko urteetan esleitutako espedienteen jarraipena egin eta 2019an sozietate publikoek, foru fundazioek eta Urbide Arabako Ur Partzuergoak esleitutako edo luzatutako espedienteen jarraipena egin ondoren, honako hau hauteman dugu: (ikus A.7.2, A.7.3, A.7.4, A.7.5, A.7.6 eta A.7.7),

- *26,8 milioi euroan esleitutako GOFEn lau kontratutan (1, 2, 3 eta 4 zk. espedienteak); 973.769 euroan esleitutako GFAn bost kontratutan (1, 2, 3, 4 eta 5 zk. espedienteak); eta 123.662 euroan esleitutako AFSren hiru kontratutan (1, 2 eta 3 zk. espedienteak) ez da ageri kontratuaren arduradunaren izendapenik.*

ALEGAZIOA

Aurreko oharrari dagokionez, aipatu behar da kontratazioak arautzen dituen agiriek hau ezartzen dutela:

«13.1.- OBREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA. Hitzartutako hori behar bezala betetzen ote den begiratzeko, koordinatzeko eta zaintzeko ardura zuzena du kontratuko zuzendaritzak, eta titulu egokia eta behar bestekoa izan behar du.

Hainbat laguntzaile eduki ditzake agindupean bere lanak egiteko. Laguntzaileak beren titulu profesionalaren edo ezagutza berezian arabera beteko dituzte dagozkien jarduerak eta kontratuaren zuzendaritzan parte hartuko dute.

Kontratua formalizatzen denetik hamabost egun natural pasatu baino lehen, administrazioak kontratazio organoak izendatutako zuzendaritzaren berri emango dio kontratistari, eta zuzendaritza horrek gauza bera egingo du bere laguntzaileei dagokienez. Aldaketak idatziz jakinarazi beharko zaizkio enpresa kontratistari».

Egia bada ere formalki adierazitako kasuetan ez dela egin agirietan aipatutako jakinarazpena, SPKLren 311. artikulua ezartzen du, kontratuaren arduradunak izendatu ez bada, eginkizun hori kontratazio-organoen mendeko zerbitzuek beteko dutela. Kasu guztietan, kontratazio organoaren mendeko unitate espezializatuak egin dituzte kontratua, haren exekuzioa eta interes orokorra behar bezala betetzen ari direla egiaztatzeko, koordinatzeko eta zaintzeko lanak.

- *189.530 euroan esleitutako GFEn kontratu batean, lizitazio-iragarkiak ez du luzapenerako aukerarik ezartzen; hala ere, Administrazio-klausula partikularren agirien ezaugarrien taulak 18 hilabeteko luzapenerako aukera dagoela adierazten du (4. espedienteak).*



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Aurreko oharrari dagokionez, esan behar da iragarkia egitean izandako errakuntza material bat dela, baina jarri ez zen informazioa eskuragarri zegoela aldi berean kontratatzailearen profilean argitaratu zen ezaugarrien koadroan. Ez du urratzen kontratazio administratiboa arautzen duten printzipioetako bat ere ez.

- *Honako erakunde hauen kontratatzailearen profilak ez du jaso behar lukeen informazio guztia jasotzen:*
 - *GOFE: kontratua ez da argitaratu 24,4 milioi euroan esleitutako hiru espedientetan (2, 3 eta 4 zk. espedienteak).*
 - *GFE: kontratua ez da argitaratu 280.060 euroan esleitutako bi espedientetan (1 eta 5 zk. espedienteak).*
 - *GFE: kontratua ez da argitaratu 373.619 euroan esleitutako bi espedientetan (3 eta 4 zk. espedienteak).*
 - *Arabako Kalkulu Zentroa SAK eta Urbide Arabako Ur Partzuergoak ez dute argitaratu kontratu txikiei buruzko informaziorik.*

ALEGAZIOA

AFAre kasuan adierazi den bezala, ez da urratu kontratazio administratiboa arautzen duen publikotasun printzipioa, kontratatzailearen profilean adjudikazioaren datu garrantzitsuenak (epea, adjudikazioduna eta zenbatekoa) argitaratu baitziren, eta, kasu askotan, kontratua formalizatu den data ere argitaratu da. Egin ez den bakarra izan da dagokion fitxategia eranstea.

- *Esleipena ez da egin esleipendunari eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliiodunetan:*
 - *GFE: 693.709 euroan esleitutako hiru kontratutan (2, 3 eta 4 zk. espedienteak).*
 - *AFS: 78.285 euroan esleitutako bi kontratutan (1 eta 2 zk. espedienteak).*
- *Ez da errespetatu kontratuaren esleipena jakinarazten denetik kontratua sinatu arteko hamabost egun baliioduneko gutxieneko epea, GFEk 214.500 euroan esleitutako kontratazio-arloko errekurtsu bereziari lotuta ez dagoen zerbitzu-kontratu batean (3 zk. espedienteak).*
- *78.285euroan esleitutako AFSren bi zerbitzu-kontratutan, 15 egun baino gehiago igaro dira kontratua formalizatu eta hura kontratatzailearen profilean argitaratu bitartean (1 eta 2 zk. espedienteak).*
- *Hamar egun baino gehiago igaro dira kontratua formalizatu denetik EBAOra bidali arte, 26,8 milioi euroan esleitutako GOFEren lau kontratutan (1, 2, 3 eta 4 zk. espedienteak).*



ALEGAZIOA

Aurreko paragrafoetan jasotako ohar gehienak kontratuen araudiak aurreikusitako izapideetarako ezarritako epeak ez betetzeari buruzkoak dira eta ez dute kontratazio administratiboa arautzen duten printzipioetatik bat ere urratzen.

- *Atzerapenez onartu dira obra ziurtagiriak edo emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak, izan ere ondasunak egiaz entregatu edo zerbitzua eman denetik hogeita hamar eguneko epea gainditu da:*
 - *GOFE: 2019an esleitutako kontratu batean (3 zk. espedientea) eta lehenagoko ekitaldietan esleitutako kontratu batean (7 zk. espedientea). Metatutako zenbatekoak 444.019 eurorenak eta 4.782 eurorenak izan dira, hurrenez hurren.*
 - *GFE: 2019an esleitutako kontratu batean (1 zk. espedientea). Zenbateko metatua 45.000 euro izan zen.*

ALEGAZIOA

Oro har, adierazi behar da, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen jardueraren barruan, ordainketa kontratazioari buruzko araudian ezarritako gehieneko epea baino beranduago egin den kasuen ehuneko ekitaldiko faktura guztien % 1,37 dela, memorian jasotako ordaintzeko epeari buruzko informazioan nabarmendu denez. Ondoren jaso da informazio hori:

2019an egindako ordainketak	OBBE (egunak)	Ordainketa kop. Legezko epearen barruan	Zenbatekoa, guztira	Ordainketa kop. Legezko epetik kanpo	Zenbatekoa, guztira
1. hiruhilekoa	6,42	3.608	12.280.806	22	83.591
2. hiruhilekoa	6,72	3.178	11.503.580	21	162.649
3. hiruhilekoa	4,41	2.808	11.873.280	103	126.187
4. hiruhilekoa	4,42	3.234	12.332.479	32	40.996
Egiteke dauden eragiketak	Egin gabeko OBBE (egunak)	Egiteke dauden eragiketen kop. Legezko epearen barruan	Zenbatekoa, guztira	Egiteke dauden eragiketen kop. Legezko epetik kanpo	
4. hiruhilekoa	2,32	515	806.172	8	5.117



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Oro har, nabarmendu behar da, Gazteriaren Foru Erakundearen jardueraren barruan, ordainketa kontratazioari buruzko araudian ezarritako gehieneko epea baino beranduago egin den kasuen ehunekoa ekitaldiko faktura guztien % 3,57 dela, memorian jasotako ordaintzeko epeari buruzko informazioan nabarmendu denez. Ondoren jaso da informazio hori:

2019an egindako ordainketak	OBBE (egunak)	Ordainketa kop. Legezko epearen barruan	Zenbatekoa, guztira	Ordainketa kop. Legezko epetik kanpo	Zenbatekoa, guztira
1. hiruhilekoa	9,40	234	263.330,64	3	2.708,64
2. hiruhilekoa	7,68	315	573.858,73	11	35.409,02
3. hiruhilekoa	15,97	339	1.026.149,05	24	195.027,16
4. hiruhilekoa	11,45	287	505.640,89	4	67.576,56
Egiteke dauden eragiketak	Egin gabeko OBBE (egunak)	Egiteke dauden eragiketen kop. Legezko epearen barruan	Zenbatekoa, guztira	Egiteke dauden eragiketen kop. Legezko epetik kanpo	
4. hiruhilekoa	7,77	20	61.006,73		

- *GOFEk aurreko ekitaldietan esleitutako kontratu batean, prezioaren ordainketa egin da hogeita hamar egunak igaro ondoren obra ziurtagiriak edo emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak onartu zirenetik, (6 zk. espedienteak). Zenbateko metatua 93.167 euro izan zen.*

ALEGAZIOA

Aurreko oharra egin da 2019ko abenduari dagokiona faktura bakarrean kudeatu delako, eguneko eta urgentzietako zentro baten gestioagatik (93.167,08 euroa). 2020/01/7an jaso zen, baina ez zen behin betiko baliozkotu 2020/02/18ra arte. Izan ere, data horretan jaso zen, BTAREN arabera, faktura ordaindu aurretik adjudikaziodunak aurkeztu behar zuen dokumentazioa (zerga betebeharrak eta betebeharrak sozialak egunean zituela egiaztatzen zuen ziurtagiria, azken 6 hilabeteetako TC1 eta TC2 agiriak, zerbitzua ematen duten langileen ordainsarien kontzeptuak egiaztatzen dituen ziurtagiria, soldata gisa egindako ordainketen frogagiria, energia elektrikoa, gasa eta ura hornitzen duten enpresek ordainketak egin direla egiaztatzeko emandako ziurtagiriak, eta eskatutako mantentze kontratuak indarrean daudela egiaztatzeko ziurtagiriak). Faktura 2020/02/20an ordaindu zen.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.5 BESTE BATZUK

- *AFAk ez ditu baimendutako sinadurak gaurkotu 15 finantza-erakundetan.*

ALEGAZIOA

Funtsak baliatzeko baimena duten sinaduren zerrenda bidaltzen zaie finantza entitate laguntzaile guztiei, haietan aldaketaren bat gertatzen denean, pertsona baimendunen kargu uzteak eta ordezkoen izendapenak direla eta. Finantza Kudeaketa Zerbitzuak artxibatu egiten ditu jakinarazpen horien igorpen guztiak, entitatearen bulego nagusian jaso izanaren agiriarekin batera.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aipatu dituen entitateen kasuetan, jakinarazpen egokiak egin ziren; beraz, entitate laguntzailearen batean informazio hori eguneratu gabe badago, entitate laguntzaile hori da erantzule bakarra.

Ohiko prozedura sistematiko horrekin batera, Herri Kontuen Euskal Epaitegian aurreko txostenetan antzeko ohar bat egin zuela ikusita, orduan aipatutako erakunde bakoitzari banaka jakinarazi zitzaion.

Horregatik, zalantzarik gabe, egindako oharrak erakusten duen arazoa ezin zaio inolaz ere egotzi Arabako Foru Aldundiari. Izan ere, behar den arduraz jardun du eta ez dakar inolaz ere arriskurik berarentzat, zabaldutako kontuetan jatorri duen funtsen mugimendu ororen helmuga bakarra Arabako Foru Aldundiaren beraren beste kontu bat baino ezin baita izan.

Egindako izapideak eta baimendutako sinadurak benetan eguneratu direla egiaztatzen duen dokumentazioa Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren esku jarri dira jada.



ABREVIATURAS

AAD	Álava Agencia de Desarrollo, S.A.U.
ACGF	Acuerdo Consejo Gobierno Foral.
AFS	Arabako Foru Suhiltzaileak - Bomberos Forales de Álava.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
DF	Decreto Foral.
DFA	Diputación Foral de Álava.
FEPEL	Fondo de Estabilización de Participación de las Entidades Locales.
IFBS	Instituto Foral de Bienestar Social.
IFJ	Instituto Foral de la Juventud.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
LCSP	Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
NF	Norma Foral.
OEP	Oferta de empleo público.
SAAD	Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia.
SSPP	Sociedades Públicas.
THA	Territorio Histórico de Álava.
UCEIS	Unidad Comarcal de Extinción de Incendios y Salvamento.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, 5 de febrero, y en su Programa de Trabajo para 2020, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del THA correspondiente al ejercicio 2019.

Las Juntas Generales de Álava no aprobaron la NF de Presupuestos para el ejercicio 2019, por lo que se han determinado mediante el régimen de prórroga. El Consejo de Gobierno Foral aprobó el 28 de diciembre de 2018 el DF 71/2018, por el que se establecen los criterios de aplicación de la prórroga de los Presupuestos del THA de 2018 durante el ejercicio 2019.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: se verifica el cumplimiento de la normativa aplicable al presupuesto, el endeudamiento, las operaciones financieras, el personal, la contratación de obras, servicios y suministros, la concesión de subvenciones y ayudas públicas y los ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si la Cuenta General se elabora conforme a los principios contables contenidos en la normativa que la regula.
- Análisis financiero de la liquidación presupuestaria de la Diputación Foral de Álava.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

La Cuenta General del THA (ver en www.araba.eus) comprende todas las operaciones presupuestarias, patrimoniales y de tesorería llevadas a cabo durante el ejercicio 2019 en:

- La Diputación Foral de Álava.
- El Instituto Foral de Bienestar Social, organismo autónomo administrativo encargado de la organización, gestión, prestación y ejecución de las actividades relacionadas con los servicios sociales.
- El Instituto Foral de la Juventud, organismo autónomo administrativo dedicado a la formación y promoción integral de la juventud.
- Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava, organismo autónomo dedicado a la prestación del servicio de prevención, extinción de incendios y salvamento de Álava.

- Las Sociedades Públicas de la DFA en las que su participación en el capital social es superior al 50%:

SOCIEDADES PÚBLICAS	% PARTICIPACIÓN	OBJETO SOCIAL
Álava Agencia de Desarrollo, S.A.U. (*).....	100	Promoción económica del THA.
Naturgolf, S.A.....	99,98	Explotación del complejo Izki-Golf.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.	100	Servicios de explotación informática.
S.A. de Gestión del Patrimonio Cultural Edificado de Álava (Arabarri) (**).....	100	Actuaciones de rehabilitación integrada. En liquidación.
Arabako Lanak, S.A.U. (***).....	100	Proyectar, financiar y explotar las obras públicas de infraestructura. Extinguida.
Vías de Álava, S.A.U.....	100	Construcción, conservación, mantenimiento y explotación de la autopista A-1 a su paso por el THA.
Indesa 2010, S.L.	99,94	Crear empleo para personas con discapacidad de Álava, siempre como centro especial de empleo.

(*) La Junta General Extraordinaria de Accionistas de fecha 13 de mayo de 2019 acordó la fusión por absorción de la sociedad Aldalur Araba, S.L., sociedad íntegramente participada por la DFA. El patrimonio neto de la sociedad absorbida que se incorpora a la sociedad ascendía a 21.807,44 euros.

(**) En liquidación tras el acuerdo de disolución adoptado por la Junta General de 29 de junio de 2018.

(***) Con fecha 20 de julio de 2016 la Junta General de Accionistas de la sociedad acordó proceder a su disolución. El proceso de liquidación y extinción de la entidad ha finalizado el 27 de junio de 2019, mediante escritura pública ante notario.

- Las Fundaciones Forales:

FUNDACIONES FORALES	%PARTICIPACIÓN	FIN FUNDACIONAL
Fundación Artium de Álava.....	100	Gestionar y dirigir el Centro Museo Vasco de Arte Contemporáneo Artium de Álava.
Fundación Catedral Santa María (*).....	40	Posibilitar la consolidación, restauración y rehabilitación de la Catedral Santa María de Vitoria - Gasteiz, así como la de su entorno urbano.
Fundación Valle Salado de Añana	98,04	Consolidación, restauración y rehabilitación integral del Valle Salado de Añana, así como su entorno, incluyéndose dentro del mismo, las denominadas "Icnitas o huellas del Mioceno" sitas en el término municipal de Salinas de Añana.
Fundación Kirolaraba	100	Promoción y desarrollo del deporte en Álava, con prioritaria atención al deporte de alto rendimiento no profesional.

(*) Participación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz en el fondo dotacional 40%.

- Consorcio de Aguas de Álava - Urbide, cuyos fines son el establecimiento y la explotación de la infraestructura de los servicios públicos de abastecimiento de agua y saneamiento.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD

